

Barrena

Kalean da BARRENA astekariaren lehen zenbakia

Debabarreneko lau euskara elkartek sortu dute, sei urteko lankidetza-prozesuaren ondotik / 2-3



Irakurle bat BARRENAren webguneari begira. GURUTZE ARIZNABARRETA

Aita-seme presidenteak, parez pare, Eibarko Urkiren eta C.D. Elgoibar Haundiren arteko derbian / 24

Mikel Soto: "Aldarrikatu nahi dut Miranderen askatasun artistikoaren alde beti paratu behar dugula" / 26

Euskal selekzioko mendi lasterketetako hautatzaile izendatu dute Maite Maiora / 25

'Txillarreko sukaldaria' dokumentala saritu dute Errenterian, giza eskubideen jaialdian / 27

Haizea kontra du Basalgo zentral eolikoak

Sei aerosorgailu jarri nahi dituzte Azurtzatik Illordorako mendilerroan, Soralezeko, Bergarako eta Eibarko lurretan, eta milaka alegazio aurkeztu dizkiote proiektuari norbanakoek eta askotariko eragileek / 4



GURUTZE ARIZNABARRETA

BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN ZUZENEKO ETA ONLINE SALMENTA

KANTAURIKO ANT XOAK ETA BOKARTAK

HEGALUZZA ETA HEGALABURRA

ESKUZ EGINDAKO KROKETAK

BESTELAKO GOURMET PRODUKTUAK

A-O: 9:00-15:00. L: 10:00-14:00 Casa Mauleon Etxea, Mutriku (+34) 629 51 54 14 pedidos@yurritagroup.com www.yurritagastronomia.com

BARRENA jaio da, Debabarreneko euskarazko hedabide berria

Barrena Komunikazio Taldeak BARRENA astekaria eta 'Barrena.eus' agerkari digitala kaleratu ditu. Haietan, lehen aldiz, debabarrendera osoko informazioa eskainiko zaie, euskaraz



Irakurle bat BARRENA irakurtzen. GURUTZE ARIZNABARRETA

Egoitz Unamuno Loidi DEBABARRENA Gaur, 2025eko abenduak 19, sei urteko lankidetzaren prozesuaren ostean, kaleratu ditu Barrena Komunikazio Taldeak BARRENA astekaria eta *Barrena.eus* agerkari digitala. Gaurtik aurrera, debabarrendera lehen aldiz aukera izango dute norbere herriko informazioaz gain gainerako herrietako informazioa ere euskaraz kontsultatzeko.

Tokikotasuna ardatz

Hedabide berriak tokiko informazioa izango du ardatz, eta, herriko herriko informazio hiperrlokalekin batera, bailara mailako informazio zabalagoa ere eskainiko du, bai paperean eta bai digitalean.

Papereko astekariaren kasuan, BARRENA astekariak aurretik herrietako aldizkariak eskaintzen zutenaren eduki bikoitza eskai-

niko du, 32 orrialdetan eta urtean 40 zenbakitan. Astekariaren atal orokorretan eskualde mailako informazioa emango du: aktualitate soziala eta ekonomikoa, iritzia, kirola, kultura, zerbitzuak –sailkatuak, zorian agurrak...–, eskelak eta agenda. Herriko herriko atala, berriz, sei herriko informazioarekin abiatuko da: Mallabia, Ermua, Sorluze, Elgoibar, Mendaro eta Deba. Banaketari dagokionez, BARRENAk sei herri horietan emango du astekaria etxean jasotzeko debaldeko zerbitzua, nahiz eta

gainerako herrietan etxean jaso ahalko da postaz, Barrenakide eginez gero.

Barrena.eus agerkari digitalari dagokionez, bailara mailako eduki esanguratsuenak azal nagusian eskainiko ditu eta herri bakoitzeko eduki hiperrlokala, berriz, herri bakoitzaren atal propioan.

Bailarako hedabidea izanik, BARRENAren helburua da debabarrendera guztiei erraztasun berberak ematea bailara osoko euskarazko informazio kalitatezkoa eskura izan dezaten.

11.250

ALE ASTERO

BARRENA astekariak 11.250 ale banatuko ditu astero debabarrenderaren etxeetara

25.200

BISITA ASTEAN

'Barrena.eus'-en aurretik izan diren lau webguneek 25.000 bisita gainditu dituzte astean

Barrena

DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

BARRENAREN LOGOTIPOA.

Iruditeria berria

Iruditeriaren oinarrian dagoen ideia nagusia erreferentzialtasuna da; euskarazko komunikabidearen izaera sendoa eta fidagarria. Logotipoak Serif tipografia klasikoa erabiltzen du, trazu sendo eta orekatuekin, eta transmititzen du komunikabidearen sakonera, fidagarritasuna eta tradizioarekiko lotura. Bestalde, xingolaren forma oso lotuta dago prentsaren eta komunikazioaren egunerokotasunarekin, eta erreferentzialtasuna indartzen duen elementua da. Azkenik, urdina komunikazioaren eta teknologia arloko kolore nagusietako bat da: sinesgarritasuna, egonkortasuna eta profesionaltasuna transmititzen ditu.

Helburu horri begira, datozen hilabeteetan Barrena Komunikazio Taldeak ahalegina egingo du bailarako eragile gehiago batzeko eskualdeko komunikazio proiektura. Ildo horretan, aipagarria da urrian Arrate Irratiak BARRENArekin sinatu duen lankidetzaren hitzarmena, zeinari esker, Eibarko irratia audioak entzun ahalko diren *Barrena.eus*-en.

Hedabide multimedia

Adituen esanetan, adimen artifizialaren sasoian hedabideek funtzio garrantzitsua izango dute gizartearen informazio fidagarriaren erreferente gisa. Egiazkoa eta egiantzekoa bereiztea geroz eta zailagoa den garaiotan, kazetaritzak eta, bereziki, tokiko kazetaritzak eginkizun garrantzitsua izango dute gizarte-kohesioa mantendu eta demokrazia indartzeko. Eginbehar hori euskaraz betetzera dator BARRENA.

"BARRENA jaio da tokiko kazetaritzan erreferente izateko euskaraz"

GAIZKA AZKARATE UZIN,
BARRENA KOOP.-EKO PRESIDENTEA



Helburua da bailarako komunikabide erreferentea izatea, eta, horretarako, kazetaritza ona egiteaz gain, ezinbestekoa izango da gaur egungo kontsumo ohitura berrietara egokitutako kalitatezko eduki multimedialeko ekoiztea; bereziki, ikus-entzunezkoak. Horra hor BARRENAren etorkizun hurbileko egiteko nagusiak: kazetaritza ona eta eduki multimediale. Zeregin horretarako, BARRENAk hamahiru langileko lantalde profesionala izango du: zortzi kazetari, maketatzailerak, komertziala, datu-analista, marketin- eta kideztza-arduraduna eta zuzendari orokorra.

Gobernantza publiko-soziala

Hedabidearen eguneroko jarduna lantalde profesionalak kudeatuko badu ere, komunikazio proiektua gidatzeko gobernanta-eredua publiko-soziala izango da, irabazi-asmorik gabeko kooperatiba baten bitartez. Koo-

"Herrietako istorioak kontatzen jarraituko dugu eskualdeari leihoa zabalduta"

AINARA ARGOITIA,
EDUKIEN ARDURADUNA



peratibak hiru hanka izango ditu: bazkide erabiltzaileak –lau euskara elkarteak–, lan-bazkideak –langileak– eta bazkide laguntzaileak –udalak eta bestelako entitateak–. Ereditu hori Eusko Jaurlaritzak Euskararen Gogoetaginearen proposamenez eskualdeka euskarazko hedabide multimedialak bultzatzeko abiatu duen estrategiaren barruan kokatzen da. Hain zuzen, BARRENA izango da Jaurlaritzak eskualdeko hedabide multimedialak bultzatzeko ildoaren baitan bateratze prozesua gauzatuko duen lehen egitasmoa. Jaurlaritzaren babesaz gain, Bizkaiko eta Gipuzkoako eta bailarako udalen babesak ere izango du.

Barrenakideen komunitatea
Proiektua arrakastaz betetzeko beste gako nagusia herritarren atxikimendua izango da, eta BA-

Barrenakideak hedabidearen parte izango dira, hedabidearen komunitateko kide

RRENAk Barrenakide egiteko aukera emango die herritarrei. Barrenakideak BARRENAren parte izango dira, hedabidearen komunitateko kide. Kide egiten diren herritarrek lagunduko dute hedabidea indartzen, euskara biziberritzen eta komunitatea egiten. Urteko kuota finko baten truke kideek hainbat abantaila jasoko dituzte: papereko argitalpena ikusi ahaliko dute webgunean –PDFa–, astekaria jaso etxeko postontzian –astekaria banatuko den herrietatik kanpo bizi diren herritarren kasuan–, zozketetan parte hartu ahal izango dute, argazkiak eta bideoak deskargatu ahaliko dituzte kalitate handian eta ur-markarik gabe, ekitaldietan parte hartu ahal izango dute, deskontuak jasoko dituzte BARRENAren zerbitzuetan eta komertzioetan, eta abar.

Barrenakide egin nahi duenak hiru aukera izango ditu, bere izaera eta kuotarekin: Kidetza Digitala, urtean 30 euro; Kidetza Pertsonala, urtean 60 euro; eta Etxekoak Kidetza, urtean 95 euro. Barrenakide modalitate bakoitzaren abantaila-sorta webgunean dago: *Barrena.eus/egin-kide/*.

"Debabarrena eskualde gisa indartzen duen lankidetzazko proiektua da BARRENA"

MAIALEN GURRUTXAGA URANGA,
ELGOIBARKO ALKATEA



"Bailaraka komunikabide sendoak sortzeak tokikotasuna indartuko du"

AITOR ALDASORO ITURBE,
EUSKO JAURLARITZA



"Euskararekin anbizioz jokatzeari dagokigu, BARRENA moduko proiektuak lagunduz"

UNAI LARREATEGI AZURMENDI,
SORALUZETako ALKATEA



"BARRENA garrantzi handikoa da hizkuntza komunitatea sendotzeko; zorionak!"

GARBIÑE MENDIZABAL MENDIZABAL,
GIPUZKOAKO ALDUNDIA



"Pauso garrantzitsua da eskualdearentzat, herrien arteko lotura sendotzeko"

AMAGOIA PASKUAL EIGUREN,
DEBEGESAKO GERENTEA



"Euskarazko hedabide indartsuak izatea denon ardura da, gizarte osoarena"

ISAAC AMEZAGA LARRAZABAL,
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA



MIKEL INIGUEZ
DENTAL STUDIO

ODONTOLOGIA DIGITALA

INPLANTOLOGIA

PERIODONTZIA

AHO KIRURGIA

AHO-ERREHABILITAZIOA ETA ESTETIKA

SEDAZIO KONTZIENTEA

CBCT 3D TEKNOLOGIA

RPS: 81/25

WWW.INIGUEZDENTALSTUDIO.COM

INIGUEZ_DENTALSTUDIO

KALEBARREN PLAZA 4W. BEHEA / 20870 ELGOIBAR

616 68 03 11

Milaka alegazio aurkeztear Basalgo zentral eolikoaren proiektuari

4.000-5.000 alegazio espero dituzte herri taldeek; udalek eta zenbait elkartek eta lur-jabek ere egingo dituzte

Ubane Madera Zangitu DEBABARRENA Astelehenean, abenduak 22, bukatuko da Basalgo parke eolikoaren proiektuari alegazioak aurkezteko epea, eta mordoxka bat batu dira asteotan.

Batetik, Eibarren, Soraluzen, Bergaran eta Elgoibarren herri-tar taldeak mobilizatu egin dira, eta, aste honetako eguaztenean esandakoaren arabera, kalkulatzeko dute 4.000 pasa batuko dituztela. Egunotan batuko dituzte azkenak, eta gero, denak batera aurkeztuko dituzte.

Eibarko Mendiak Bizirik plataformak esplikaturakoaren arabera, "herri-alegazioen dokumentuek bederatzi puntu jasotzen dituzte, bost bloke handitan banatuta: proiektuaren lurralde-antolamenduaren araudiarekiko bateraezintasuna, biztanleriaren osasunean eta bizi-kalitatean duen eragina, ingurumen-inpaktu kritikoak, landa-eremua eta kultura-ondarea pobretzea eta baliabide eolikoaren justifikaziorik eza".

Hain justu, gaur, ostirala, egingo dute alegazio kanpainaren "itxiera ekitaldi sinbolikoa", Eibarren. 19:00etan da hitzordua, Untzaga plazan, eta inguruko herritarrei ere bertaratzeko dei egin diete, besteak beste, "Basalgo proiektuari oposizioa irudikatuko duen familia-argazkia ateratzeko".

Udalak, elkarlanean

Osterantzean, inguruko udalerrietako hainbat erakundek, lur-jabek eta elkartek ere aurkeztuko dituzte alegazioak.

Erakundeei dagokionez, Eibarko, Elgoibarko, Soraluzeko eta Bergarako udalak elkarlanean ari dira. Aste honetako astelehenean, udal horietako teknikariek arkitektoak, aparejadoreak, ingurumen teknikariak, aboka-



Zentral eolikoa eraiki nahi duten mendilerroa. GURUTZE ARIZNABARRETA

200

METRO ALTU

Sei aerosorgailu nahi dituzte jarri, bakoitza 200 metro altu izango dena.

12

FUTBOL ZELAI

Aerosorgailuei eusteko, 12 futbol zelai beste plataforma behar dira.

30

URTE

Parke eolikoa 30 urterako da. Gero, dorreak erretiratu egingo dituzte; ez, ordea, plataformak.

12.000

ZUHAITZ

Soraluzeko Baso Biziak elkarteak salatu du 12.000 bat zuhaitz txikituko dituztela

tuak...— beste bilera bat egin zuten Eibarren, bakoitzak duen informazioa gainerakoekin konpartitzeko. Elgetako Udalak, berriz, atzo egin zuen bilera informatiboa, eta bertan, proiektuari buruzko informazioa ez ezik, Udalak aurkeztuko dituen alegazioen berri ere eman zuten.

Horrez aparte, udal horien artean Kimar Ingurumen Aholkularitza enpresa kontratatu dute, Basalgo zentralak izango zukeen ingurumen inpaktua azter dezan, eta asteen jaso dute edo jasotzear dira diagnostikoa.

Orain, diagnostiko hori oinarri hartu, bestelako informazioarekin osatu, eta, dena aztertuta, udal horiek alegazioak landuko dituzte. Esate baterako, Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialak Azurtzatik Ilordorako eremua egokitasun baxuko eremu-gisa sailkatu du, eta, ondorioz, Basalgokoa moduko eskala handiko azpiegitura, berez, debekatuta legoke harako. Azken orduko aldaketarik ez bada, horixe izango da alegazioetako bat.

Elkartek eta lur-jabeak

Elkarteei dagokionez, berriz, proiektuarekiko kontrakotasuna erakutsi dute Soraluzeko Baso Biziak elkarteak, Eibarko Baso Biziak Elkarteak eta Eibarko Klub Deportiboak, besteak beste, eta, batera edo bestera, haiek ere alegazioak aurkezteko asmoa helarazi dute.

Azkenik, zentral eolikoa eraikitzeke erabili nahi dituzten terrenoetako zenbait lur-jabek ere aditzera eman dute alegazioak aurkeztuko dituztela, parke eolikoak terrenoak jango dizkielako eta animaliendako bazka kenduko dizkielako, besteak beste.

60 solairuko etxeen pare

Urriaren 17an argitaratu zuen Andaluziako Arena Power enpresak Basalgo parke eolikoari buruzko proiektua Euskadiko Buletin Ofizialean.

Haren arabera, sei aerosorgailu jarri nahi dituzte Azurtzatik Ilordorako 2,5 kilometroko mendilerroan, Soraluzeko, Bergarako eta Eibarko lurretan. Haize-erota bakoitzak ia 200 metroko altuera hartuko du —Karakateko antena hiru bider

edo 60 solairuko etxebizitza baten besteko altuera—. Konparazioa egite aldera, Oizeko aerosorgailuak 60 metro altu dira eta Basalgokoa hiru bider altuago izango lirateke.

Errota bakoitzari eusteko, bi futbol zelai besteko lautadak egin nahi dituzte; beraz, guztira, hamabi futbol zelai besteko lautadak, %30 eta %40 bitarteko maldak dauden lekuetan.

Errepideak eraiki

Horrez aparte, aparatu horiek Arrasatetik, Kanpanzarren barrera, Elgeta zeharkatuz eraman nahi dituzte mendilerroa, eta, horretarako, sei metro zabal diren errepideak eraikiko dituzte. Bestalde, parke eolikoan ekoiztutako energia Elgoibarre garraiatu behar dute, gero handik beste lekuren batera eramateko. Argindarra garraiatzeko, argindar posteak ere behar dituzte.

Kalteak floran eta faunan

Proiektua aztertzen ari diren zenbait adituk esan dutenez, hori guztia eraikitzeak kalte ikaragarriak eragingo ditu mendiko floran eta faunan. Soraluzeko Baso Biziak elkarteak, esaterako, salatu zuen "12.000 zuhaitz txikitu eta milaka tona lur emankor galduko" direla; tartean, babestuko pagadi bat, eta, baita akuiferoak ere. Faunari dagokionez, salatu dute proiektuaren eremua sai zuriaren eta miru gorriaren hegaldi gunea dela, eta, espezie horiek galtzeko arriskuan daudenez, haien kontserbazio plan bereziek debekatu egiten dituztela Basalgokoa moduko azpiegiturak. Eta, oro har, inguruan ugariak diren txorien dako eta saguzarrendako ere mehatxu dira.

EAEko Energia Berriztagarrien LPSk egokitasun baxuko eremu-gisa sailkatu du

Hegaztiei, saguzarrei, zuhaitzei, akuiferoei... kalte egingo die

Euskaltzaletasunaren giharra indartzeko ekitaldira deitu dute abenduaren 27rako

Bilbo Arena kirolgunean izango da ekitaldia, 17:00etan hasita

Ainara Argoitia

Euskara eta euskal hiztun komunitatea "larrialdi linguistikoan" dagoela ohartarazi du Euskalgintzaren Kontseiluak. Euskal Herri osoan gero eta gutxiago dira euskaraz erdaretan baino errazago egiten duten hiztunak (%17,5), eta 2036. urterako ez da arnasunerik izango. Hau da, ez da euskararen erabilera %80tik gorakoa den herririk geldituko. Egoera horretan, indarrak batzera deitu ditu euskaltzaleak Kontseiluak. Asmo horrekin antolatu du bihar zortzi, abenduaren 27an, Bilbon egingo den Pizkundera ekitaldia ere: euskaltzaletasunaren giharra indartzeko. Bilbo Arena kirolgunean egingo dute ekitaldia, eta sarrerak salgai daude, *Pizkundera.eus* webgunean, 10 euroan.

Euskararen biziberritze prozesuak aurrerapen handiak izan ditu, baina asko dira susperraldi aro hori eten den eta atzeraldia etor daitekeen zantzuak, adituen esanetan. Globalizazioak eta digitalizazioak, oldarraldia- ren areagotzeak, erabilera so- zialaren ahultzeak eta erronka berriek jarri dute euskara kin- ka larrian, baina lehenago ere izan ditu "behin betiko itzaltze- ko arrisku uneak", eta aurrera egin du, euskaltzaleek "une kritikoetan elkarrekin aritzeko eta egiteko izan duten gaitasu- netik etorri delako beti Pizkun- dea". Helburu hori izango du abenduaren 27ko ekitaldiak.

Kultur kutsuko ekitaldia

Euskarari beste arnasaldi bat eman nahi zaio, eta, horretarako, zentzua emango dion irudi eta erreferentzia mundu

bat sortuko dute Bilbo Arenan, kulturaren oinarrituta. Musikak hartuko du tarterik handiena. Hamarkadatan euskararen soinua banda izan diren kantuak interpretatuko dituzte Euskal Herri osoko eta belaunaldi askotariko bederatzi musikaririk: Amets Aranguren, Anari, Beñat Goitia *Benzze*, Gontzal Mendi-bil, Gorka Urbizu, Joseba Tapia, Julen Goladarazena *Flako Fonki*, Maia Iribarne eta Miren Narbaiza.

Musikariez gain, baina, euskarazko zineman nabarmendu diren Edurne Azkarate, Itziar Ituño, Miren Gaztañaga eta Ramon Agirre aktoreek ere parte hartuko dute, bai eta Ane Labaka eta Sustrai Colina bertso-lariek ere, beste zenbait kultur-gilerekin batera. Ekitaldia Oier Guillan antzerkigileak zuzenduko du.

Saharako haurrak udan harreraren hartzeko programa aurkeztu dute

Ainara Argoitia

Oporrak bakean programa aurkeztu dute Tindufen (Aljeria), 50 urtez gure ateak zabalik lelopean. Okupazioari egiten dio erreferentzia leloak; izan ere, 50 urte bete dira Espainiako Estatuaren oniritziarekin Marokok Mendebaldeko Sahara okupatu zuenetik. Geroztik, lurralde okupatuan bizi dira saharar batzuk, eta beste asko. berriz, Aljerian, errefuxiatuentzako Tindufeko kanpamentuetan, basamortuko lur mortuetan. Eta, hain justu ere, baldintza gogor horietan bizi diren haurrei udan arnasa emateko bidea egiten du *Oporrak bakean*-ek. Hala, 10-12 urte bitarteko haur sahararrak udan etxean hartzeko familia bila hasi dira. Urtarrilaren 15era arte dago kanpainen izena emateko.

Muturreko beroa eta ekaitz handiak izaten dituzte Tindufen udan, eta handiak ihes egiteko aukera eman nahi diete haurrei. bai eta behar bezala-

ko osasun arreta eskaini ere. Izan ere, errefuxiatuentzako kanpamentuetan baliabideak falta dituzte oinarri-oinarrizko beharrak estaltzeko. Horren harira, edozein ezaugarritakoa izan daiteke harrera-familia; betiere, umearekin egoteko denbora eta gogoia baldin baditu, eta harentzako tokia etxean: *Oporrakkabeanean.eus*.



Aurkezpena, Tindufen OPORRAK BAKEAN

NIRE USTEZ

Nostalgia eta utopia



ANGEL
UGARTEBURU
IRAKASLE OHIA

Inork ez dugu aukeratu noiz eta non jaio. Ezta eme, ar edo zein arrazako izan ere. Ez da merituaren kontua, beraz. Zorionekoak familia giro gozora eta herri baketsura datozenak eta zoritxarrekoak gorroto eta gerra zelaiaeren erdian begiak lehen aldiz zabaltzen dituztenak. Negarrez jaio ginen eta berdintsu egiten dugu negar eta barre mundu zabalean, izatez berdinak garelako.

Gizakiaren historian elkarbizitza etengabeko lehia izan da eta hala jarraitzen dugu, batzuen lagun eta beste batzuen etsai, mugak eta gotorlekuak eraikiz. Harresiak eta gazteluak ziren feudalismoan eta armaz zaindutako mugak, ondoren. Prehistorian, klima, pizti eta gainontzeko etsaiengandik babestuz bizirauteko grinak arrastoa utzi du guregan. Esan liteke gizakiak beldur atabikoak somatizatu egin dituela; hau da, aspaldiko beldur eta izuak soinean daramatzala eta horren eragina nabari dela muturreko jarrera eta ekintzetan. Batez ere, eskuin muturrean. Badirudi arazo korapilatsuak, alde eta ertz asko dituztenak, sinplifikatuz, pobretuz lortu nahi dugula; kosta ahala kosta, geure segurtasuna bermatzea. Ez dira, ez gara konturatzen aniztasuna kudeatzeak denontzat ekar ditzakeen abantailak zein neurritan

hobetuko luketen gizarte eta nazioarteko elkarbizitza.

Europako historian, merkataritzak hala eskatuta, lur arteko itsasoa, Mediterraneo, bihurtu zen mendetan zehar mugaz gaindiko gizarte berriak behar zuen jokaleku zabala. *Mare nostrum* (geure itsasoa) izendatu zuten erromatarrek mugaz gaindiko inperioa. Nazioez gaindiko beste inperio batzuek eraman zuten gero *estatus* berriaren gidaritza; kristauak eta katolikoak zein islamistak mendi, ibai eta harresien gainetik elkartzen zituen erlijiozko batasunaren bidez. Beti erabili izan dira, bai erlijioa eta bai hizkuntzak, mugaz gaindi herrien identitatea eraiki eta mantentzeko arma gisa. Itsasoz zabaldu zen Erromatar Inperioan latinaren nagusitasuna; itsasoz lortu zuen, halaber, ingeles hizkuntzak XIX. mendean bere nagusitasuna, itsas nabigazioan lortutako supremaziari esker. Merkataritza, ekonomia, izan da hizkuntzen bilakaera ezberdinen ardatz.

Gaur, arraza, hizkuntza eta kulturen amalgama korapilatu honetan, gero eta gutxiago balio dute lehen herri baten kohesiorako funtsezkoak ziren ezaugarriak. Txiki bihurtu zaigu mundua, eta, berezitasunak berezitasun, gizarte osoaren ongizateak

gidatu beharko lituzke gidarien asmo eta ekintzak. Lan zaila izango dugu Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko tenkak lasaitzen, zein Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko amildegia berdintzen.

Boteretsu izan diren estatuek nostalgia dute euskarri. Hala, AEBek (*Amerika first*), Britainia Handiak (Commonwealth, *brexitea*), Frantziak (Napoleon amets), Espainiak (Inperio Gaztela-katolikoa), Italiak (Erromatar Inperioaren distira) zein Turkiak (inperio otomandarra)... algia horrek mina adierazten du. Garai batean izan zinen horretara itzuli nahi eta ezinak sortzen duen nahigabea. Historiaren aldi zehatz batzuetan euren funtzioa bete zuten antolamenduek ez diete, ordea, gure gizarte globalizatuaren beharrei erantzuten. Utopikoak eta ukronikoak dira, baina nostalgikoek iragana idealizatzeke joera dute, bai hala sinesten dutelako edo konforme ez daudenak amuan kateatzeko asmoz. Arrantzu ona egiten dute, gainera. Gabiltzan adi, berez mugarik gabea den gure planeta zaindu eta elkarbizitza orokorra sustatzeko proiektuak burutu eta, gorrotoa eragiten duten injustiziak gaindituz, utopiak gauzatuz, negar eta barre elkarrekin egin dezagun.

GUTUNAK

Malgutasun apur bat, mesedez

AITOR CORNEJO
ELGOIBAR

Abenduaren 11n, 12:00 aldera, Txarridunako biribilgunera hurbildu nintzen autoz. Farmaziaren aurrean dauden aparkaleku egokituen aurrean gelditu nintzen espaloari pegatuta, eta alaba ogia eroatera jaitsi zen okindegira. Jaitsi bezain laster, Udaltzaingoaren auto bat jarri zitzaidan alboan eta udaltzainak esan zidan ezin nuela han gelditu. Esan nion alaba ogia erosten ari zela eta 30 segundoan mugituko nuela autoa. Autoa mugitzeko eskatu zidan eta itzultzeko Melitongo zubitik bira emanda. Aurrean, aparkatutako beste bi ibilgailu zeuden, gidaririk gabe, eta berriz esan nien alaba iristean mugituko nuela autoa eta ez niola trafikoari traba egiten, baina, hala balitz, auto barruan nengoela mugitzeko. Berriro eskatu zidan bira emateko, eta ezetza eman nionez, arau-hauste larria jarri zidan. Aipatu behar da dokumentazioa eman nion une berean irten zela alaba okindegitik. Hala ere, udaltzainak leku berean eduki ninduen 5 minutuz, isuna jartzen. Badakit arauak betetzeko daudela, baina iruditzen zait zentzu pixka bat ere izan behar dela haiek betearazterakoan eta ez dela hain autoritario izan behar. 200 euroko isuna jarri didate. Ez dut eskatuko kentzeko, baina nahi nuke udaltzainek kontuan hartzea lan guztietan behar dela zentzu pixka bat.

Ezin da gehiago luzatu

SARE ELGOIBAR
ELGOIBAR

Ettxeratze prozesua nahi genukeena baino mantsoago garatzen ari bada ere, aurrera urratsak nabarmenak izan direla esan dezakegu: euskal preso, iheslari eta deportatu guztiak etxeratzeko helburua inoiz baino gertuago dugu. Horren arrakasta euskal gizartearena da, hein handi batean; auzoz auzo eta herriz herri urte osoan zehar egindako mobilizazioen ondorioa. Aurrerantzean ere badugu, ordea, zer aldarrikatu: *Ezin da gehiago luzatu* lelopean, abenduaren 24an, Kalegoen plazan elkartuko gara eta gure kantuen bitartez euskal preso eta exiliatuak ekarriko ditugu gogora. Abenduaren 26an, kalejira alaia egingo dugu haien eskubideen alde, Kalegoen plazan hasi eta Maalaraino. Adi! Aurten kalejira 19:00etan izango da, bertso jaialdiarekin bat ez egiteko. Eta ez ahaztu urtarilaren 10ean urteroko hitzordua dugula Bilbon. Behar bat da iraganarekin eten eta aurrera egitea. Erakutsiko dugu indarkeria ezberdinen biktimen aitortzarekin eta euskal preso, iheslari eta deportatuen etxeratzearekin lortuko dugula elkarbizitza. Helburua berretsi egiten dugu, eta mobilizazioetan parte hartzera animatzen zaituztegu.

Barrena[®]
DEBABARRENEKO
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria
Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.
Erredakzio batzordea
Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhoa Andonegi, Dorleta Vidal,
Izaro Aulestiarte.

Diseinu arduraduna
Oier Larreategi.
Zuzentzailea
Sergio Azkarate.
Kidetz eta banaketa arduraduna
Alex Turmillas.
Maketazioa
Zalao Arnaiz, Oier Larreategi.
Publizitatea
Leire Rubio.

HARPIDETZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
Tel.: 943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
Tel.: 943 74 16 26
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA
Elgoibar 20820
Ifar Kalea 12, behea
Tel.: 943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
Tel.: 943 74 41 12

ERMUAKO EGOITZA
Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
Tel.: 943 17 93 50

SORALUZEKO EGOITZA
Soraluze 20590
Errabal 15, 1
Tel.: 943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025
ISSN: 3101-2647
Tirada: 10.000 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

BARRENAN ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Elgoibarko Udala



Ermuako Udala



Mallabiko Udala



Mendaroko Udala



Mutrikuko Udala



Soraluzeko Udala



Elgoibarko rokodromoaz

JOSU MERINO

Gipuzkoako eta Espainiako federazioetako instruktorea 30 urte baino gehiagoan
ELGOIBAR

Elgoibarko rokodromoaren inguruan pare bat hitz idazteko beharra dagoela uste dut:

Badira hainbat urte rokodromoa edo eskalatzeko instalazio txukun bat martxan jarri zela, baina urteak (asko) pasa ahala zaharkituta geratu da, hori gerta ez zedin saiatu diren arren herriko eskalatzaileak. Mantentze eta hobetze lanen faltan sumatzen dugu.

Elgoibarko rokodromoak, eskalatzaileen/erabiltzaileen ustetan, ez ditu gutxieneko beharrak asetzen.

Rokodromoaren gainbehera nabarmena da.

-Egin diren azken hobekuntza batzuk zuzenak izan direlakoan gaude – autoaseguradoreak jartzea eta abar–, baina beste hainbat ez –pareta express-ez betetzea adibidez–.

-Mantentze lanei dagokienez, tamalgarria da egoera. Presak ez dira berritzen, oso noizean behin garbitzen dira, eta ez behar bezala –irristakor eta arriskutsu uzten dituzte presak–.

-Eskaladako bideak ez dituzte urteetan aldatzen eta bide berri/ezberdinak jartzen.

-Eskaladako gunea ez dago prestatuta ume txikiei eskaladako klaseak emateko. Eta haurrak nagusiok

entrenatzen garen lekuan daudenez, noiz edo noiz ezbehar bat gerta daiteke.

Eta egoera hori izanda, herriko eskalatzaile gehienak behartuta sentitzen gara entrenatzera beste herrietako rokodromoetan joatera. Pentsatzen dugu iritsi dela ordua kontuan hartu gaitzaten eta benetako inbertsio bat egin dezaten gure kirolean. 30 urte igaro eta gero, rokodromo berri baten proiektua mahai gainean jartzea nahi dugu.

Palestina

MARIAN LARRAÑAGA

DEBA

Beldurgarriak, lotsagarriak, Palestinako datuak. Zer txikizio! Zenbat pertsona izan diren akatuak... Emakumeak berriz nagusi bezala haur bortxatuak. Israeldarrak geratu dira betirako mantxatuak. Isildu diren orduan bonbak ta komunikabideak. Ahaztu gara hango triskantzaz, ez gara hain sensibleak. Baina lehen bezain martiri dira, ez malgu edo libreak. Denon artean ea aurkitzen ditugun konponbideak.

Euskaltzaleon garaia da!

IDURRE ESKISABEL LARRAÑAGA

Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusia

Errotonda, bidegurutzea, moteltzea, etena, minbizia...

Azken urteetan hitz sorta hori guztia erabili da euskararen etorkizunak sorturiko kezka adierazteko. Izan ere, datuek,

ikerketek eta aurreikuspenek normalizazio eta biziberritze prozesuan atzera egiteko arriskua handia dela agerrarazi dute.

Hau aintzat harturik, euskara eta euskal hiztun komunitatea larrialdi linguistikoan gaudela adierazi genuen Euskalgintzaren Kontseilua osatzen dugun eragileok orain urtebete. Mundu aldrebestu honetan ugaritu zaizkigun krisi sistemikoen parte da hizkuntza-larrialdia, globalizazioaren muturreko aldaera honek eta bizitzaren digitalizazioak eremu guztietan egiten baitu indartsua indartsuago eta zaurgarria zaurgarriago; hizkuntzen auzian, hizkuntza nagusiak nagusiago eta minorizatuak oraindik eta ahulago.

Hala ere, azpimarratu genuen larrialdian gaudela adieraztea ez dela etsitzeko dei bat; aitzitik, euskarari pizkunde berri bat emateko lehen argi-izpia ekartzea dela. Itxaropenaren txinparta piztekoa.

Baina itxaropena ez da zain egotea. Itxaropena egitea da. Ezinbestekoa da, euskara kinka larrian izan den beste momentu batzuetan bezala, berriro ere euskaltzaletasunaren giharra indartzea. Izan ditugu lehenago ere larrialdi gorriko uneak, eta aldi bakoitzean milaka euskaltzaleren bulkada, erabaki eta ekimenetik etorri dira pizkunderak; une kritikoetan elkarrekin aritzeko eta egiteko izan dugun gaitasunetik.

Eta, jakina, euskaltzaletasuna itxaropena ez ezik, mundua ikusteko

modu bat da: hizkuntza-supremazismoaren kontrako jarrera bat, hizkuntza berdintasunaren aldekoa. Azken batean, justiziarekin, berdintasunarekin eta askatasunarekin sakonki lotzen den ikuspegi bat. Arestian aipatu dugu mundua hizkuntza minorizatuen kontra datorrela, baina guk euskara dugu munduaren alde.

Euskararen etorkizuna jokoan dago, eta berriro ere euskaltzaletasuna lehen lerrora ekartzeko unea da. Eguneroko milaka ekintza eta keinuren bidez, baina ahaztu gabe euskararen biziberritzeak ezinbesteko dituela erabaki politikoak; jauzi bat behar dela euskararen aldeko politika publikoetan egungo erronkei aurre egiteko.

Guztion esku dago horretan eragitea. Abenduaren 27an Bilbao Arenan milaka euskaltzale batzeko erronka dugu aurretik. Isiotu dezagun Pizkunde berri baten lehen

txinparta. Euskaltzaleon garaia da!

Ehundik gora euskaltzale ezagunek bat egin dute iritzi artikularekin. Zerrenda osoa, [kontseilua.eus](#) webgunean, ostiralean eguneratuko da sinadura gehiagorekin.


Hurrengoa, urtarrilaren 16an

Irakurle, BARRENAREN hurrengo zenbakia urtarrilaren 16an jasoko duzu etxean, Gabonetako oporraldiaren ondoren. Gogoratu ordurako zorion-agurren bat edo bestelako informazioren bat bidali nahiko bazenu, beranduenez urtarrilaren 13rako bidali beharko zenukeela, BARRENAREN zure herriko bulegora. Izan ere, aurrerantzean ere herrietako arduradunak izango dira zuen erreferente nagusi, tokiko izaerari eustea delako gure bokazioa.

Nolanahi ere, Gabonetako oporraldian etenik ez du izango BARRENAREN webguneak. Gurekin harremanetan jartzeko mezua bidali [barrena@barrena.eus](#) helbidera edo etorri edo deitu gure betiko egoitzetako batera.

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI





Elkarteen Foroko kide Koro Muro eta Asier Zinkunegi, Eusko Ikaskuntzaren egoitzan. MARKEL ARRAYAGO

Elkartegintzaren erronkei aurre egiteko, eredu berrietara jauzi egiteko unea da

Egoeraren diagnosis egiten eta bide berriak aztertzen ari da Elkarteen Foroa

Koro Muro Arriet eta Asier Zinkunegi Larrea. Eusko Ikaskuntza Fundazioko eta Dar-dar Gizarte Ekimen Kooperatibako ordezkariak dira, hurrenez hurren, eta Elkarteen Foroko kideak biak: herritarren partaidetza bultzatzen duten lurraldeko elkarteen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzako Zerbitzuaren arteko topagune eta elkarlanerako gune kide, alegia. Badira urte batzuk bertan dihardutela, gizarteari gehigarri bat eskaintzen diola oharturik. "Jabetu ginen

administrazioa eta gu garai batean mahaiaren alde banatan kokatzen baginen ere, posible zela alde berean ipintzea eta elkarrekin lan egitea, gizarteari begira", adierazi du Zinkunegik. Kulturaren esparrutik datozen

"Gazteak erakartzeko, agian, epe motzekoak diren ekimenetara jo behar dugu"

KORO MURO ARRIET,
EUSKO IKASKUNTZA FUNDAZIOA

eragileak, gizarte-politikan da biltzanak... askotariko eragileak daude Elkarteen Foroan -40 bat guztira- eta, horien baturari administrazio publikoa gehituta, espazio oso aberasgarria sortzen dela erantsi du. "Aberasgarria, bai", berretsi du Murok, eta existitzen zirenik ere ez zekiten hainbat elkarte ezagutzeko balio izan diela gehitu du.

Baldintzak aldatzen
Produkziara bideratutako gizarte batean bizi garela diote, sekulako abiaduran goazela, eta

denbora eta energia oso gutxi geratzen zaizkigula gizarte arazo ezberdinetan inplikatzeko. Biak bat datoz: "Duela 50 urteko ereduetatik eredu berrietara egiteko unea da". Egungo gazteek beste ohitura batzuk dituztela dio Murok, eta horietara egokitu behar dugula: "Elkarteetan belaunaldi aldaketa gerta dadin, ezinbestekoa da gazteak erakartzeara, eta gaur egungo gazteek ez dituzte epe luzeko konpromisoak onartzen. Agian, epe motzeko edo puntualak diren ekimenetara jo behar dugu". Guztiz ados azaldu da Zinkunegi: "Askotan dudan sentsazioa da nahi dugula jendeak parte hartzea, baina guk nahi dugunean, guk nahi dugun hizkuntzan, guk nahi dugun... eta ahazten zaigu eurek nahi izan behar dutela, eta eskubidea dutela eurek nahi duten hori emateko, eta ez guk eskatzen dieguna. Elkartegintzan ikasi beharko genuke gehiago entzuten erabiltzaile edo bazkide potentzial horiei".

Exijentzia burokratikoak

Errelebo premia ez ezik, beste erronka bat ere mahaigaineratu dute: administrazioarekiko betebeharrak erraztekoa: "Gaur egun, edozer gauzetarako, txosten bat aurkeztu behar duzu, baliabide digitalak oso ondo erabili... eta guk sumatzen dugu gure ingurunean dauden hainbat eta hainbat elkartek arazoak

"Elkarteak sortzen dira administrazioak asebetetzen ez dituen beharrei erantzuteko"

ASIER ZINKUNEGI LARREA,
DAR-DAR GIZARTE EKIMEN KOOP.

dituztela administrazioaren eskaerak betetzeko garaian".

Sinergien bila

Gipuzkoa eta Euskal Herria, oro har, elkartegintzan aberatsak direla dio Murok, baina, elkarren arteko ezezagutzaren ondorioz, hainbatetan, gauza beretan aritzen direla, eta horrek duplikazioak ekartzen dituela sinergiak lortu beharrean. Ildo horretatik, Zinkunegik gaineratu du administrazioek aztertu behar dutela eremu bakoitzean zein elkarte dauden, zer egiten eta zertarako, eta saiatu behar dutela, batetik, elkarte horiei errekonozimendua eskaintzen egiten dutenarengatik, eta, aldi berean, harago joaten nola lagundu diezaieketen aztertzen. "Azken batean, elkarteak sortzen dira administrazioak asebetetzen ez dituen behar batzuk asebetetzeko, eta uste dut administraziorik, batzuetan, ahaztu egiten zaiola hori", azaldu du.

Elkartiri eta Prest

Norabide horretan ari dira lanean Elkarteen Forotik. Elkartiri egitasmoaren baitan sortutako ikus-entzunezkoaren bitartez, herritarrak sentsibilizatu gura dituzte eta elkarerik gabeko herri bat nolakoa izango litzaitekeen hausnartzera bideratu -"grisa eta hotza", Zinkunegiren hitzetan-. Eta Prest ekimenen bitartez, bestetik, udaletara bideratutako esperientzia pilotu bat jarri dute martxan, elkartegintza ikusarazi, aitortu eta lankidetzara sustatzeko. Tolosan egin dute oraingoz, eta, datorren urtera begira, beste herri batzuetan ere inplementatzea da asmoa; hori eta herritarrak elkarteetan parte hartzera animatzea: "Denok gara beharrezkoak", adierazi dute.



GIPUZKOA

Ekin. Zaindu. Bizi.



Elkarteen Foroa

Elkartiri dokumentala



KAIXO, EUS NAIZ. EUSEBIO.



Eskuratu
•EUS domeinua
9 EUROAN.

EUSEBIO
PUNTU
•EUS

Erregistratzen laguntzeko,
eskatu hitzordua:
EUSEBIO.EUS



Bederatzi gaztaren artetik aukeratuko dute urteko gaztarik onena Gabon Zahar ferian

Urtean zehar txapelketaren bat irabazi duten gaztek hartuko dute parte

Ainhoa Andonegi

Urteko ardi-gaztarik onena aukeratzeko gazta lehiaketa egingo dute aurten ere Gabon Zahar feria egunean, Kalamua elkarteak Udalarekin elkarlanean antolatuta. 2025ean antolatutako eta Jatorri Izendapeneko Kontseilu Erregulatzailerak araututako ardi-gazta lehiaketaren batean irabazi duten gaztagileek parte har dezakete txapelketaren txapelkunena aukeratzeko lehiaketa horretan, eta aurten bederatzi izango dira lehian sartuko diren gaztandegiak: La Leze –Debako eta Ordiziako irabazlea–, Kortaria –Bilbo, Elgoibar, Uhartte-Arakil eta EHTko irabazlea–, Zabaleta –Azpeitiko irabazlea–, Mausitxa –Araiako irabazlea–, Barandiaran –Plentziako irabazlea–, Insausti –Legazpiko irabazlea–, Olano –Aguraingo irabazlea–, Ricardo Remiro –Gernikako irabazlea– eta Bostibaieta –Eibarko irabazlea–. 11:30ean hasiko da txapelketa, eta eguerdi alderaki jakinaraziko dute txapeldunaren izena. Irabazle bakarra egongo da, eta 1.500 euro eta garaikurra jasoko ditu.



lazko txapelketaren irudi bat. ASIER ORBEA

Ferian 80 bat postu

Urteko azken zapatuan egingo dute Gabon Zahar azoka, eta aurten 80 bat salmenta-postu jarriko dituzte. Horrez gain, abereak ere egongo direla aurreratu du Elgoibarko Udalak. 08:30ean zabalduko dute azoka. Kalegoen plaza eta inguruak ere hartuko ditu; izan ere, Giza Eskubideen parkean, Aita Agirre plazan, Kalebarrenen eta Pedro Miguel Urruzuno kalean ere izango da zer dastatu eta ikusi. Hasteko, 09:00etan zabalduko dute parrokiako jaiotza meka-

nikoa, eta 10:00etan kalejiran abiatuko dira Baltzola eta Lagunak taldeko trikitilariak. 10:00etatik 14:30era, berriz, Maalan izango dira ArTalde taldeko artisauak, euren produktuak saltzen, eta, 11:30etik aurrera, Kalebarren plazan, Eusko Labeldun saiheski-pintxoak salduko dituzte Elgoibar ikastolakoek, Armueta, Patxi eta Ziarda herriko harategien jeneroarekin egindakoak.

Azokaren bueltan, bestalde, izango da bestelako ekitaldirik ere; esaterako, Plazara Dantzara dantzaldia. Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleak irtengo dira dantzara Lekueder plazara, eta, ume zein heldu, elkarrekin arituko dira urtean zehar ikasitako dantzak ikusleei eskaintzen. Antolatzaileek aurreratu dute euria eginez gero dantzaldia Olaizaga kiroldegian egingo dutela. Gazta lehiaketarekin batera, barazki eta fruta postuen lehiaketa ere egingo dute, eta Neka-zaritzu ustiatetik txartela duten ekoizleek parte hartu ahal izango dute. 19:00etan emango diote egunari azkena, Kittu taldearen kalejirarekin.

Igeriketa erronka egingo dute kiroldegian urtarrilaren 11ra arte

A.A.

Abenduaren 15ean hasi zuten igeriketa erronka Olaizagako kiroldegian, eta urtarrilaren 11ra arte hartu daiteke parte. *Igerian gozatu, osasuna hobetu!* lemapean, kirola sustatzea, herritarren parte-hartzea areagotzea eta erabil-tzaileei motibazio gehigarria eskaintzea dute helburu erronkaren sustatzaileek. Kirol Patronatuko abonatuak har dezakete parte erronkan, eta horretarako nahikoa da igerilekuko sorosleari jakinaraztea, hark arbelean jaso dezan erronka egingo duen igerilariaren izena. Parte-hartzaileek sariak jasotzeko aukera izango dute, antolatzaileek ezarri dituzten distantzia-helburuak

gainditu ahala. Hiru neurri jarri dituzte: 5,5 kilometro –Kontxako Estropadaren distantzia–, 10 kilometro –Olinpiar Jokoetako ur irekietako probaren distantzia– eta 17 kilometro –Maltzagatik Deba ibaia itsasoratu arte dagoen distantzia–.

Haurrentzako puzgarriak

Bihar, abenduaren 20a, haurrentzako uretako puzgarriak jarriko dituzte Olaizaga kiroldegiko igerilekuan. 5 eta 12 urte bitarteko umeentzako izango dira, eta Kirol Patronatuko abonatuak ez dute sarre-rarik ordaindu beharrik izango. 16:00etatik 20:00etara egongo da igerilekua zabalik.

OHARRAK

Xake txapelketa

Abenduaren 20an, 10:00etan, xake lokalean. Eskolartekoa.

Tomas Conderen omenezko xake txapelketa

Abenduaren 20an, 16:00etan, xake taldekoen lokalean.

Mus txapelketa

Abenduaren 20an, 16:30ean, Batzokian.

Txu txu tren

Abenduaren 22an, 11:00-13:30 / 17:00-19:30.

Presoen aldeko kalejira

Abenduaren 26an, 19:00etan, Kalegoen plazatik.

Kristau ikasbidekoen meza

Urtarrilaren 6an, 11:00etan. Errege Magoek hartuko dute parte.

Deba ibaiaren sorburua ezagutu dute



MORKAIIKO.

Deba ibaiaren sorburua ezagutzeko irteera egin zuten domekan herriko hainbat familiak, Morkaiko eta ikastetxeek antolatuta. Leintz Gatzagara joan ziren eta Deba ibaia sortzen duten hiru errekek batzen diren Hiruerreketa inguruan ibili ziren.

Korrikako materiala jarriko dute salgai astelehenean

Martxoaren 19an hasiko da Korrika, Atharratzen, *Euskara gara* lelopean, eta Bilbon amaituko da, hilaren 29an. Elgoibarko AEK euskaltegiko kideak hasita daude aurrelanetan, eta, giroa berotzen joateko, Korrikako materiala jarriko dute salgai astelehenean, Kalebarren plazan. Arropa eta petoak erosteko aukera izango da, 11:00etatik 13:30era. Euria egiten badu, King Kong-era aldatuko dute mahaia.

Korrikaren aurtengo omendua, bestalde, Errigora izango da, eta laguntzaile kanpaina ere abian dute dagoeneko. Hau da, Korrikari babesa adierazteko ekimena.

Urtarrilaren 2an berrituko dira Kirol Patronatuko abonatuak

Elgoibarko Udalak jakinarazi du urtarrilaren 2an berrituko dituztela Kirol Patronatuaren abonatuak. Beraz, baja eman nahi dutenek abenduaren 22rako jakinarazi beharko dute, Olaizaga kiroldegiko harreraren edo *olaizagakiroldegia@elgoibar.eus* helbidera mezua idatzita.

Urteko abonuei lotuta, 2026an kuota hori hileka ordaintzeko aukera emango du Patronatuak. Azaldu dute, baina, ez dela hileroko kontraturik izango, eta zatika ordaintzea aukeratzaren duenak ere urte osorako konpromisoa hartzen duela. Modu horretan ordaindu nahi dutenek ere abenduaren 22rako jakinarazi behar dute.



MEKANOSA Errosario, 27-Elgoibar
943 740 284

- ☒ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ☒ MULTIKOPISTAK
- ☒ FOTOKOPIAGAILUAK
- ☒ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ☒ MARRAZKETA MATERIALA
- ☒ INFORMATIKA
- ☒ FAXA

Jon Aranao
Guillermo Torres



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneetik ostiralera:
11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbata: 11:00 - 13:00

Errege Magoek hartuko dute parte.

23,4 milioiko aurrekontua onartu du Elgoibarko Udalak 2026rako

EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin egin du aurrera proposamenak

Ainhoa Andonegi

Udal Gobernuak 23.427.676,20 euroko aurrekontua aurkeztu zuen abenduaren 9ko osoko bilkuran, eta EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin egin zuen aurrera proposamenak. Hortaz, iazko urte hasierakoa baino 1.941.192,72 euro handiagoa (%9,03) izango da 2026ko udal aurrekontua. Elgoibarko EH Bilduk kontrako botoa eman zuen.

Udal aurrekontua hiru sail nagusitan banatzen da: antolakuntza (%26), herritartasuna (%33,7) eta lurraldea (%40).



Udalbatzaren azken osoko bilkura. A.A.

Inbertsio garrantzitsuenak

Hirigintza Sailak izango du aurrekonturik handiena, eta hauek dira inbertsio aipagarrienak: Errezabaleko aparkalekua (1.600.000), udal komunitate energetikoa (240.000), Mintxetako gimnasioa (125.000), landa-guneetako lanak (169.500) eta herri bideen konponketak (90.000). Horiekin batera, beste hainbat proiektu dituzte esku artean, beste erakunde batzuekin elkarlanean: Errezabal egoitza (21 milioi), ambulatorio berria (3.600.000) eta

Pedro Mugurutza eraikina (1.800.000).

Diru-sarreraren atalean, berriz, zuzeneko zergak %9 igo dira, eta tasa eta bestelako sarreretan %32ko igoera egon da; gehienak, hiri hondakinen bilketagatik.

Udal Gobernuak azaldu du aurrekontu proiektua behin idatzita oposizioiko kideei aurkeztu zela proposamena, negoziazio-prozesu bat zabaltzeko, eta "jarrera irekia" izan dutela prozesuan zehar. Haien esanetan, oposizioaren proposamenen

%60 jasota geratu dira aurrekontuan.

EH Bildu, kontra

EH Bilduk bi premisatan oinarritu du bere kontrako jarrera: batetik, esan dute beren ezauzgarrietako bat gobernantza komunitarioa dela, eta eragileekin elkarlanean gobernatzearen alde daudela. Horri dagozkionez egin duten balorazioa "ezin negatiboagoa" izan da, eta esan dute Udal Gobernuak ez duela parte-hartze bide formalik ezarri aurrekontuak egiteko orduan. Bestetik, aurrekontuak "kontinuistak" direla salatu dute. Era berean, adierazgarria iruditu zaie pertsonen eremua gutxien hazi dena izatea, eta ez dute ondo ikusi Euskara, Kultura, Gazteria eta Bertintasunean partidak murriztea termino absolutuetan. EH Bilduk jakinarazi duenez, aurrekontuetarako proposamen zehatzak aurkeztu dute oposiziotik, lehen tasunezkoak diren gaiak kontuan hartuta, eta, Udal Gobernuak proposamen horri eman dion erantzuna ikusita, 2026ko udal aurrekontua ez babestea erabaki du.



Bacalaos Alkortakoen protesta ekitaldia.

Akordioa lortuta bukatu dute greba Bacalaos Alkortako langileek

Ainhoa Andonegi

Lan baldintza duinak eskatzeko hitzarmenaren negoziazioak aurrerapausorik eman ez zuela argudiatuta, greba mugagabeari ekin zioten Bacalaos Alkorta Anaiak enpresako beharginek abenduaren 9an, eta joan den egunean kalera irten ziren protestan. Hurrengo egunean enpresarekin akordioa lortu, eta amaitutzat eman zuten greba.

Akordioan puntu hauek jaso dituzte: 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera langile guztientzako gutxieneko oinarritzko 1.500 euroko hileko soldata bermatzea, langile bakoitzak gaur egun jasotzen dituen ho-

bekuntza indibidualak errespetatuta –soldata-igoera horrek %24rainoko igoerak ekarriko dizkie langileei estatu-mailako hitzarmeneko gutxiengoan daudenentzat–; eta enpresako hitzarmen kolektibo propio bat lantzeko konpromiso irmoa hartzea, orain arte lan-baldintzak arautzen zituen arrain eta itsaski-kontserben estatu-mailako hitzarmena atzean lagata.

ELA sindikatuak ontzat eman du akordioa: "Akordio horrek aukera ematen digu enpresa hitzarmena sinatzeko. Gainera, berriro ere frogatuta geratu da borrokak merezi izan duela eta horretarako langileak antolatuta egotea beharrezkoa dela".


Bi milioi euroko beka bat jaso du Maite Solasek, alzheimerri ikertzeko

A.A.

Farmakologia irakaslea eta ikertzailea da Maite Solas Zubiaurre (Elgoibar, 1983) Nafarroako Unibertsitatean. Alzheimer gaixotasuna ikertzen ari da, eta aurrez ere jaso zuen beka bat gaixotasunaren jatorria argitzeko hasita duen lanagatik; Pasqual Maragall Fundazioarena, 800.000 eurokoa. Orain, ikerketan sakontzen lagunduko dion bi milioi euroko beka jaso berri du neurozientzialari elgoibartarrak gidatzen duen lantaldeak; ERC Consolidator Grant izenekoa. 3.121 eskaera aurkeztu ziren beka deialdira, eta horietatik 349 proiektu aukeratu zituzten.

Ikerketan sakontzeko aukera

Solasek azaldu du lehenago jaso zuten beka osatzera datorrela bigarren hori, eta "zerbait handiagoa" egiteko aukera emango diela uste du. Zehazki, Europako Ikerketa Kontseiluak ematen duen bekarekin jasoko dituzten bi milioi euroei esker HyperAstroMet proiektua garatzeko aukera izango dutela aurreratu du: alzheimerri ikertzeko proiektu berritzailea, astrozitoen metabolismoan arreta jartzeagatik. Garunaren funtzionamendurako funtsezko zelulak dira astrozitoak, eta horiek ikertzeko arrazoia da zelula horiek alzheimer gaixotasunaren agerpen goiztiarrean eta garapenean



Solas, unibertsitateko laborategian.

duten eragina zenbaterainokoa den aztertzea. Solasek gogora ekarri du alzheimerri munduan zabaltzen ari den gaitza dela, eta oraingoz ez dagoela hura sendatzeko "tratamendu eraginkorrik".


Bost lanpostu betetzeko deialdia egin du Udalak

Lau administrari eta gizarte langile bat kontratatuko ditu Elgoibarko Udalak oposizio bidez. Gizarte langile posturako Gizarte Lanean diplomatua edo baliokidea den gradu titulua edukitzea beharrezkoa da, eta hirugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatzea, C1 maila. Abenduaren 26ra arte eman daiteke izena. Administrari posturako, berriz, batxilergo titulua, titulu teknikoa edo baliokidea izatea eta hirugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatzea –C1 maila– eskatzen dute. Izen-ematea urtarrilaren 13an amaituko da. Deialdiari buruzko informazio osoa www.elgoibar.eus/lan-eskaintza-n dago.

Salgai daude Goazen kontzertua ikusteko sarrerak

Goazen telesaileko aktoreak hasita daude dagoeneko kontzertuak ematen, eta, hain zuzen ere, urtarrilaren 16an iritsiko dira Elgoibarrera. Bi kontzertu emango dituzte Herriko Antzokian: 17:00etan izango da lehenengo emanaldia eta 19:00etan bigarrena. Joan den barikuan jarri zituzten sarrerak salgai, eta eskuragarri daude dagoeneko Herriko Antzokiaren webgunean: herrikoantzokia.eus. Hala ere, nahi duenak Herriko Antzokiko txarteldegian ere erosi ditzake sarrerak, zapatuetan, 19:15etik 21:30era. Helduen sarrerak 5 euro balio du eta umeenak, berriz, 3 euro.

NIRE USTEZ

Amaiera bat eta hasiera bat

**ALAITZ
ALMORTZA**
IRAKASLEA

Hasierek ezinegon sortzen didate. Agian, hasiera batek amaiera bat dakarrelako izaten dut sentsazio hori. Hasierekin batera erantzunik ez duten galderak bururatzen zaizkit, etorkizunarekin lotutakoak. Pentsatzen dut horiek erantzuten saiatzeak sortzen didala ezinegon, saiatuta ere ezin baitiet erantzuna topatu. Hala ere, ezinegon horrekin –orain zuek ere zaku berean sartzen ausartuko naiz– aurrera egin eta bide berriei ekiten diegu, amaierak bizitzaren parte

direla onartuz. Izan ere, amaierarik gabe, hasierek ezingo lukete hasierarik izan. Sorpresaz jaso nuen albistea azken *Barren* etxera heldu zenean: *Barren* agurtu eta *Barrenari* ongietorria ematen zion aldizkariak. Amaiera bat eta hasiera bat; baina, elkarrengandik banatu gabe, ibilbide beraren parte baitira. Euskarak herritarren etxeetara bisita egiten jarraituko du astero, eskualdeko beste herriekin aldizkari bakarrean bilduta. Proiektu berri hau orain arte egindako lanaren eta ikasitakoaren erakusgarri dela uste dut.

Urtea ere azkenetan da. Mahai inguruetan ez dira

faltako urtean zehar egindakoaren inguruko azalpenak edota datorren urtean beteko (ez) diren promesak. Telebista eta sare sozialetan urteko errepasoa egingo da, eta, konturatu orduko, 2026an murgilduko gara. Munduak, hala ere, bere horretan jarraituko du. Urtea amaituko da eta eskuin-muturrak beste aliatu bat izango du. Urtea amaituko da eta *amaitutako* gerrek herriak desagerrarazten jarraituko dute. Urtea amaituko da eta Gabonetako magiak ez ditu etxe guztiak epelduko, ez eta koloretako argiek txoko ilun guztiak argituko.

KEXA

Aizkorri kalean ispilua falta da

"Udalerrian bide-segurtasunerako arrisku handia duen puntu bat aipatu nahi nuke. Oso bihurgune itxia da Aizkorri kalera igotzen dena, ikuspen gutxikoa, errepide estua, eta trafiko handia duena. Sarritan sustoak eduki izan ditugu, eta ispilu bat jartzeak istripuak saihesten lagunduko lukeela uste dut. Oinezkoen eta gidarien segurtasuna asko hobetuko litzateke".

barrena@barrena.eus



KEXA

Bi eraikin egoera txarrean, Altzolan

"Batak andamiaoa dauka aspalditik jarrita eta espaloia erabat hartuta, eta besteak arrakala arriskutsuak ditu aspalditik. Ahaztuta eta miseria egoeran dago inguru hori. Oinezko eta auto asko ibiltzen dira egunero, eta ezbeharren bat gertatu aurretik neurriak hartu beharko lirateke".

barrena@barrena.eus

KEXA

Igerilekuko ura hotza dago

"Umeak igeriketa ikastaroetara joaten direnean erabat hoztuta geratzen dira, eta guraso batzuei iruditzen zaigu ura hotzegi egoten dela. Ume askok neoprenoa erabiltzen dute, eta hala ere, hotzez egoten dira. Eskertuko genuke umeen igeriketa ikastaroetarako ura gehiago berotzea".

barrena@barrena.eus

Barrena

Jarri ezazu
zure publizitatea
BARRENA astekarian
edo
www.barrena.eus
webgunean

943 743 704
688 769 657

Galdetu prezioak eta
gustura erantzungo dizugu

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162

LAGUNAK
colchoneria textil hogar
San Roke kalea, 20 - Elgoibar
943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com

Gabon hauetan,
zure ametsak
goxatuko dituzten
izarak oparitu!
Koralinazko izarak
%50eko deskontuarekin.

EXPRESS ESKAINTZAK!**HELP FALSH IOT V16 BALIZA**

- Led Teknologia
- DGT 3.0 konektibitatea
- IP54 babesa
- 2,5 ordu larrialdi-moduan
- Geo lokalizazio anonimoa
- 1 km-tara eta 360º-tan ikusten da

39 €



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Elgojaiotza elkarteak, 45 urtez parrokiako jaiotzari bizia ematen

1980an jarri zuten estreinakoz jaiotza, eta pandemian soilik huts egin zuten

Ainhoa Andonegi Alonso

Elgojaiotza elkarteak 45 urte bete ditu, eta, koronabirusaren pandemia urteko debekuak indarrean zeuden urtean izan ezik, gainerakoetan urtero jarri dute Gabonetako jaiotza San Bartolome parrokian. Anton Zabaleta taldeko beterranoenak eta Jose Angel Rodriguez taldeko kide berrienak eman dizkigute jaiotzari buruzko azalpenak.

Gaur egun ezagutzen dugun jaiotza 1979an hasi zen mamitzen. Azpeitian ordurako jartzen zuten jaiotza, eta handik ekarri zuten ideia Elgoibarrera. Anton Zabaleta, Antonio Barrenetxeak, Patxi Avinzanok eta Jose Luis Eizagirrek azaldu zioten egitasmoa Karlos Agirre orduko parrokoari, eta hark eman zien baimena jaiotza parrokiako sakristian jartzeko. Hurrengo urte osoa eman zuten lanean. Anton Zabaleta bere aitaginari-errebari eskatu zion laguntza ur-errot mugimendudun bat sortzeko, eta ondo gogoan dauka zenbat ordu eman zituzten pieza hura sortzen: "Amaginari-errebak ere esan zidan lan hura beste ezer ez zeukala senarrak buruan".



Rodriguez eta Zabaleta jaiotzarekin.

Baliabide gutxiarekin baina ilusio handiz egin zuten lehenengo jaiotza, eta, jendaurrean erakusteko egunaren bezperan, jaiotza kokatuta zeukaten egurrezko euskarria behera etorri zen. Konpondu zuten nola-hala, eta inauguratu zuten jaiotza. Harrera bikaina izan zuen.

Berrikuntzak urtero

72 bat piezak daukate mugimendua gaur egun, eta urtero pieza berriren bat sartzen saiatzen dira. Horretarako, beste piezaren bat kendu behar izaten dute, eta

horrek ematen dizkie buruhaus-teak, pieza guztiak oso kuttunak dituztelako. Mimo prestatzen dute dena, eta detaile guztiak zorrotz zaintzen dituzte. Gaur eta eguna bereizten ditu jaiotzak. Gaur izarrak pizten dira, 1.300 izar baino gehiago, eta izar bakoitza zuntz optiko kable batek pizten du. Txantxak ere egin izan dituzte izarren kontura. "Zenbat izar dauden asmatzen dituenari Belaustegin afaria ordainduko diogula ere esan izan diogu noizbait", azaldu dute.

Udako oporrak amaitu eta berehala hasten dira lanean, eta, abendura bitartean, 21:00etatik 23:00etara biltzen dira egunero. Oinarria urte osoan prest izaten dute, piezak estalita uzten dituzte ez hondatzeko, baina urtero izaten dute zeregina, eta, dena prest dutela pentsatzen dutenean ere, ezustekoak izaten dituzte sarri. Bihar zabalduko dute lokala, eta San Anton egunera arte egongo da jaiotza ikusgai. Iaz 15.000 ikusletik gora zenbatu zituzten, asko kanpotik etorritakoak, propio Elgoibarko jaiotza ezagutzera. Egunk jendetsuena Gabon Zahar FERIA eguna izan zen.



Jaiotza lehiaketako talde irabazleak.

Hamar taldek hartu dute parte jaiotza lehiaketan, eta hiru saritu dituzte

A.A.

Kabalgata Taldeak antolatuta, joan zen domekan egin zuten jaiotza lehiaketa. Hain zuzen ere, hamar taldek hartu dute parte aurtengoa, eta horietatik hiru saritu dituzte. Lehenengo saria Luciano Gonzalezek eta Catia Coitiñok osatutako taldeak irabazi zuten; bigarren saria June Alonso, Sara Arrizabalaga, June Castellanos eta Sara eta Jon Leonardo neba-arrebek osatutako taldearentzat izan zen; eta hirugarrena, berriz, Nuria eta Alex Quintanak jaso zuten. Guztira hamar taldek aurkeztu zituzten jaiotzak, eta, antolatzaileek esan dutenez, epaimahaiak lan

handia izan zuen sariak banatzerakoan, aurtengo lan guztiak maila handikoak izan direlako.

Kabalgata Taldeko ordezkariak eskerrak eman dizkiete parte hartzaileei, beste behin ere poza eta ilusioa jarri diotelako lehiaketari. Era berean, Elgoibarko Udala, Belenisten Elkarteak, Aranburu bitxi-denda eta Kopilan ere eskertu dituzte, emandako laguntzagatik.

Erakusketa

Parte hartu zuten taldeek eginiko lanak ikusgai jarri dituzte Kultur Kafean, eta urtarilaren 7ra arte egongo da erakusketa bisitatzeko aukera, taberna-ordutegian.

Lau txarteletik batek saria izango du Elgoibarko Izarraren tonbolan

Ainhoa Andonegi

Elgoibarko Izarrak tonbola jarriko du aurtengoa abenduaren 24an, Kalegoen plazan, 11:00etatik aurrera. Elgoibarko eta Mendaroko elkarteak, enpresa eta norbanakoek emandako opariek osatu dute tonbola, eta guztira bi mila opari baino gehiago banatuko dituzte. Euro batean salduko dituzte txartelak, eta lautik batek saria izango du. Hala ere, saritu gabeko txartelak ondo gordetzeko eskatu dute arduradunek; izan ere, saririk gabeko txartel horien artean telebista bat zozkatuko dute. Hala, saritu gabekoak gorde egin behar dira. Zenbatuta daude guztiak, eta 14:00etan egingo

dute zozketa, Kalegoen plazan bertan. Zenbaki sarituaren jabeak momentuan agertu beharko du; hamar minutu izango ditu lehenengo sarituak oparia jasotzeko, eta ez bada agertzen, beste zenbaki bat aterako dute, irabazlea agertu arte.

Elgoibarko Izarrak eskerrak eman dizkie aurtengoa ere elkar-teari babesa eman dioten eragile guztiei, eta baita abenduaren 24an tonbolara joango direnei ere.

Laguntza eske

Elgoibarko Izarrako kideek antolakuntzarako laguntza behar dute. Askotariko lanak eta zereginak dituzte, baina,



lazko tonbolako irudia. ASIER ORBEA

bereziki, goizean goiz muntaia lanetan laguntzeko eta dena amaitutakoan jasotzen lagunduko dien jendea behar dute. Interesatuak elkartera jo dezakete: 943 741 626 / elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus.

Eguberrietako bertso jaialdia, abenduaren 26an

Elgoibarko Izarrak, Udalarekin lankidetzan, abenduaren 26rako antolatu du aurtengo bertso jaialdia. Herriko Antzokian izango da, 20:00etan. Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Alaia Martin, Miren Artetxe eta Eneko Lazkoz arituko dira bertsoan, eta gai-jartzaile lanak Maite Berriozabalek egingo ditu. Elgoibarko Izarraren bulegoan erosi daitezke sarrerak, abenduaren 23ra arte: 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Sarrerak geratzaren badira, emanaldiaren egunean bertan jarriko dituzte salgai, Herriko Antzokiko txarteldegian. Sarrerak 13 euro balio du –Elgoibarko Izarrako bazkideek, 11 euro–.

FARMAZIAK

20 ZAPATUA	Barrenetxea
21 DOMEKA	Barrenetxea
22 ASTELEHENA	Soto
23 MARTITZENA	Garitaonandia
24 EGUAZTENA	Soto
25 EGUENA	Soto
26 BARIKUA	Yudego
27 ZAPATUA	Oruesagasti / *Arriola
28 DOMEKA	Oruesagasti
29 ASTELEHENA	Barrenetxea
30 MARTITZENA	Soto
31 EGUAZTENA	Arriola
1 EGUENA	Arriola
2 BARIKUA	Fernandez
3 ZAPATUA	Yudego
4 DOMEKA	Yudego
5 ASTELEHENA	Oruesagasti
6 MARTITZENA	Fernandez
7 EGUAZTENA	Soto
8 EGUENA	Garitaonandia
9 BARIKUA	Arriola
10 ZAPATUA	Fernandez / *Barrenetxea
11 DOMEKA	Fernandez
12 ASTELEHENA	Yudego
13 MARTITZENA	Oruesagasti
14 EGUAZTENA	Barrenetxea
15 EGUENA	Garitaonandia

*Goizez

Banatu dituzte kirol federatuaren sariak, eta 23 lagunek jaso dute aitortza

Kirol federatuaren urteko sariak banatzeko ekitaldia egin zuten eguaztenean Herriko Antzokian, eta, sari banaketarekin batera, kirol inklusiboari buruzko mahai-ingurua egin zuten

Ainhua Andonegi

Elgoibarko kirol klubek egin diete aitortza taldeetako ordezkariari, eta eskerrak eman dizkiete urteetan egindako lanagatik. Sariak emateaz gain, kirol inklusiboari ikusgarritasuna emateko ere baliatu zuten gala, eta La Liga Genuine txapelketako ordezkariarekin tertulia egin zuten. Adimen urritasuna duten gazteek jokatzen dute liga horretan. Hauek hartu zuten parte: Real Sociedad Fundazioko Ainara Muga eta Leire Esnal, Realeko La Liga Genuineko jokariak; Athleticeko Igor Arenaza, Fundazioko koordinatzailea; Eneko Apoita, Athleticeko La Liga Genuine taldeko atezaina; Eibarko Ander Romarate, Futbol Inklusiboaren arduraduna; eta Markel Barrocal eta Ander Arce jokariak. Azken hori, elgoibartarra.



Mahai-ingurua. ASIER ORBEA



Saritu guztiak eta galaren antolatzaileak, Herriko Antzokian. ASIER ORBEA



Joane Unamuno
Egokran judo kirol kluba (judoa)



Roberto Garcia
Morkaiko mendizale taldea (Mendia)



Zigor Esnaola
Sanlo eskubaloia taldea (Eskubaloia)



Mikel Agirrebeña
Mintxeta atletismo taldea (Atletismoa)



Felix Astigarraga
Lagun Taldea (Txirrindularitza)



Ruth Gurrutxaga
C.D. Elgoibar (Futbola)



Iker Astigarraga
Elgoibarko saskibaloia taldea (Saskibaloia)



Miguel Angel Arozena
Elgoibarko igeriketa taldea (Igeriketa)



Iñaki Basurto
La Union (Ehiza)



Giovanni Campo
40-15 (Tenisa)



Ander Conde
Lagunak (Pilota)



Felix Manso
Zubi Ondo (Xakea)



Ion Larrañaga
Urbizi (Urpekaritza)



Ana Peñalba
Olaizaga kirol kluba (Karatea)



Aingeru Molina
Zarta (Arku tiroa)



Unai Lete
Gigorraki (Gorren kirola)



Ander Arce
Nuala elkarte (Aniztasun funtzionala)



Iker Zubillaga (Construcciones Echaide)
Sigmako Probaleku elkarte (Idi probak)



Xabier Arrizabalaga
Hirutxirlo (Boloak)



Josu Rodriguez
Kirol Patronatua (Kulturismoa)



Jabi Leon
Kirol Patronatua (Kazetaritza)



Ane Bastida
Kirol Patronatua (Futbola)



Marc Gabilondo
Kirol Patronatua (Gimnasia erritmikoa)

"Ikuskizun berritzailea izango da Mendarorako 'Oreka-Desoreka'"

AITOR ETXEBERRIA ESKULTURAGILEA

Ainara Argoitia Arano

Aitor Etxeberriaren obran oinarritutako *Oreka-Desoreka* ikuskizun literario eta musikatua aurkeztuko dute Mendaron abenduaren 26an. San Agustin kultur gunean izango da emanaldia, 19:00etan. Etxeberriaren azken hamar bat urtetako eskultura eta instalazioak proiektatuko dituzte pantaila handian, eta hitza jarriko die Andoni Salamero olerkariak, zuzeneko musikarekin lagunduta. Aitor Furundarena soinu-jotzailea eta Juan Arriola eta haren alaba Nerea eta Maddi biolin-jotzaileak

ariko dira egiteko horretan. Sarrrera doan izango da.

Ikuskizun berritzailea da aurkeztu duzuen hau Mendarorako. Nolatan bururatu zitzaizuen, eta nola sortu zen zuen arteko harremana?

Azpeitian erakusketa bat jarri nuenetik ezagutzen nuen Andoni Salamero, hura aritu zelako orduan hitzez nire lana azaltzen han, bai eta gerturatu zirenekin solasaldi halako bat dinamizatzen ere. Eta duela urtebete inguru, antzeko zerbait egitea proposatu zidan. Kontua da Mendaron ez nuela ikusten eskultura lanak erakusgai jar-



Aitor Etxeberriaren artxiboko argazki bat.

tzeko leku handirik, eta horregatik baliatu gara proiektoreaz. Eskultura, poesia eta musika uztartuko dituen ikuskizun berritzailea izango da Mendarorako *Oreka-Desoreka*.

Ibilbide luzea egin duzu zuk eskulturgintzan; koka dezagun denboran: zure obraren zer parte egongo da ikusgai?

Batez ere, azken hamar-hamabi bat urteetan egindako eskulturen eta instalazioen irudiak erakutsiko ditugu.

Hainbat diziiplina uztartuko dituzue oholtzan. Nola egingo duzue?

Irudiak poesiarekin jantziko ditu Salamerok, eta hamar bat iruditik behin eten bat egingo dugu musikari tartea egiteko. Hamahiru bat etenaldi izango dira guztira, eta lau musikari arituko dira oholtzan: Aitor Furundarena soinu handiarekin, Juan Arriola mendaroarra gitarrarekin eta haren alaba Nerea eta Maddi biolinarekin. Proiektatuko dugun irudi multzo handi bat Torreirako hondartzan (Portugal) egindako instalazioenak eta eskulturenak

dira. Hondartza basatia da Torreirakoa, kilometroetako hareatza zabala eta duna-gune handiak dituena. Itsasoko ur asaldatuak eta Aveiroko itsasadarreko ur bareak nahasten dira han, eta sortzen den horrek liluratuta utzi ninduen ezagutu nuenean. Han egindako argazki batzuekin pieza bat osatu nuen gero, eta gerora, zazpi bat urtean joan naiz hara. Ibilian-ibilian sortu izan ditut instalazioak han, itsasoak ekarritako materialarekin. *Land-art* deitzen zaio gaur egun horri, eta, azken batean zera da: natura –egurra, lurra, harea, haizea...– material gisa erabiltzea bere baitan esku hartzeko. Era berean, beste jende batek hondartzan sortutako lanak ere ikusi ahal izango dira. Zerbait iradoki didaten lanak dira; nire begiradatik, artea diren lanak.

4,5 milioi euroko aurrekontua onartu du Mendaroko Udalak

2025ekoa baino %24 handiagoa izango da aurrekontua, eta aho batez onartu dute zinegotziek

A.A.

4.486.792,99 euroko aurrekontua izango du datorren urtean Mendaroko Udalak, aurtengoa baino %24 handiagoa, eta, ohi legez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru funtsa izango da diru iturri nagusia. Izan ere, 1.927.465,90 euro jasoko ditu Mendarok poltsa horretatik, aurtengorako baino 125.000 euro gehiago. Gainerakoan, inbertsio errealean atalean gertatu da aldaketa handiena, ia laukoiztu egin baita atal horretara bideratutakoa: 353.500

eurotik 1.319.774,05 eurora, hain zuzen ere.

Inbertsio errealetan bi dira bereziki nabarmentzekoak: batetik, jubilatuen taberna eta egoitzaren zaharberritzea; eta, bestetik, kale argiteria osoa LED teknologiarara aldatzea.

600.000 euro bideratuko dituzte jubilatuen taberna eta egoitza zaharberritzera, aurten gorde diren 150.000 euroei gehituta. Obrak azaroaren 17an hasi zituen Jaizubia enpresak, eta zortzi hilabete dituzte amaitzeko. Obra horren baitan, batetik, egoitza

handitu egin nahi dute, adinekoen askotariko interesei eta beharrei erantzuteko, eta, bestetik, jubilatuen taberna herriko bizitza sozialaren topagune bihurtu nahi dute, bertan formatu txikiko kultur ekitaldiak antolatzeo aukera egon dadin.

Herriko kale argiteria LED teknologiarara aldatzeko, berriz, 507.274,05 euro izango ditu 2026an Udalak. Urteak dira, zatika-zatika, kale argiteria LED teknologiarara aldatzeko urratsak egiten dabilela Udala, eta urte hasieran aldatzeko zegoen zatia (565) berritzeko laguntza eskatu zion Trantsizio Ekologikorako Ministerioari. Handik jaso du Udalak egin beharreko inbertsioa egiteko mailegua, interesik gabe 10 urtean itzultzeko. Bestelako inbertsioak ere aurreikusten dituzte, dirutan handienak honako hauek: Udalaren lokal

komertzial bat Etxebidek kudeatutako alokairurako etxebizitza bezala egokitzea –80.000 euro–; hirigintzako obra txikiak –50.000 euro– eta landa-gunetako inbertsioak –30.000 euro–.

Kulturako eta gizartegintzako gastuak, gora

Kulturan eta gizartegintzan egin dute gora gastuek. Kulturaren %10eko igoera izango da: 469.635 eurotik 518.215 eurora; gizartegintzan, berriz, igoera 549.450 eurotik 573.900 eurorakoa izan da: %4,5. Hala, ia zetik egonkortu egin dituzte babes sozialeko neurri batzuk: etxez etxeko laguntza –iaz %71 handitu zuten– eta Gizarte Larrialdietarako Laguntza –iaz %33 handitu zuten– eta beste partida batzuk handitu; esaterako, Berdintasunerakoa –8.000 eurotik 20.000ra–.

OHARRAK

Gabonetako postal lehiaketa

Eskola-umeek egindako postalak jarriko ditu ikusgai Arno Guraso Elkarteak, gaur, ikastolako jolastokian.

Ikastolaren Gabon aurreko jaialdia

10:00etan kantura irtengo dira kalera ikastolako haurrak. Eguneko Zentroan, Herriko Enparantzaren eta Mendarozabalen egingo dituzte geldialdiak. 11:30ean egingo diete harrera, ikastolan, eta ondoren txorizoa eta madalenak banatuko dituzte Arnokoek.

Ameikutz musika eskolako Gabonetako jaialdia

Abenduaren 22an, astelehena, egingo dute Ameikutz musika eskolakoek Gabon aurreko jaialdia, San Agustin kultur gunean. 19:00etan hasiko da jaialdia.

Gabonetako haur parkea

Mendaroko Udalak antolatuta, puzgarriak jarriko dituzte abenduaren 26an, frontoian. 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik parkea.

Liburutegia itxita, Gabonetan

Mendaroko udal liburutegia itxita egongo da abenduaren 24tik urtarrilaren 7ra

Haur krosa egingo dute bihar, Mendarozabalen

Mendaroko Txirrindulari Elkarrekin haur krosa antolatu du biharko LH-6ra arteko umeentzat. Mendarozabalen egokituko dute zirkuitua eta adinka banatuta egingo dute lasterketa umeek. 16:30ean izango da lehenengo lasterketa, baina antolatzaileek ordu erdi aurretik joateko eskatu dute, dortsalak jaso ahal izateko.



lazko irudi bat. AINARA ARGOTIA

Garalutz mendira irteera antolatu dute domekarako

Arno guraso elkarteak iragarri du urteko azken mendi-irteera izango dena. Hain zuzen ere, domekan egingo dute, Mendaroko Garalutz mendira. 09:30ean abiatuko dira, Herriko Enparantzatik, eta eguerdirako itzuliko dira, bi ordu eta erdiko ibilaldia eginga.



ARG.: ARNO GURASO ELKARTEA

Abenduaren 21ean jarriko dute martxan Tonbola Solidarioa

Egitasmo horrekin jasotako dirua elkartasun proiektuetara bideratuko dute

Dorleta Vidal

Apaletan pilatutako materialari azken ukituak ematen ari dira tonbolako kideak; izan ere, egun gutxiren bueltan zabalduko dute aurtengo Tonbola Solidarioa: abenduaren 21ean, hain zuzen ere. Egundorretan 5.000 txartel inguru jarriko dituzte salgai Zubiaurre kaleko 20. zenbakian, eta euro baten truke sari ugari irabazteko aukera egongo da.

Taldekiek hilabeteak eman dituzte sariak prestatzen: eskuz egindako tokillak eta poltsak, artilezko bufandak, amantalak... baina, tartean, herriko dendeak eta norbanakoek emandako gaiak ere badaude: kuxinak, beirateria eta jostailuak, besteak beste. Eta lan horren guztiaren azpian elkartasunari lotutako helburua dago: ermuarrak egiten ari diren proiektu solidarioei laguntza ekonomikoa ematea, hain zuzen ere.

"20 urte baino gehiago daramatxagu tonbola antolatzen, eta milaka euro jaso ditugu; Kolonbiara bideratu dira -Mirreia Suarezren bitartez-, baita Txilera -Nico Urretari esker- eta Senegalera ere -Hortensia Perosanzen eskutik-, besteak



Tonbolako kideak. J. MALBADI

beste. Eta diru horri esker, misiolari horiek aukera izan dute ura ateratzeko putzuak eraikitze, janaria erosteko eta umeak eskolako materialaz hornitzeko, proiektu batzuk aipatzearren".

Taldea indarberritu

Tonbolako kide Mari Karmen Urkidiren eta Nieves Lauzirikaren esanetan, herritarrek proiektua ezagutzen eta babesten dute, eta asko dira ireki bezain laster joaten direnak txartelak erostera, baina aitor-

tu dute lantaldea bera nahiko ahul dagoela: "Bospasei emakume aritzen gara lanean, eta batez besteko adina 70 urtekoa da: nagusienak 82 urte inguru ditu!". Hori dela eta, proiektu sendoa izan arren, haren etorkizuna zalantzan dagoela iruditzen zaie. "Duela gutxi, gazetxo bat batu zaigu, eta bestelako lanak egiten laguntzen digu, baina jende gehiago behar ko genuke", azpimarratu dute.

Indarrez justutxo ibili arren, aurtengo tonbola ireki dute Santxau jailetan ere, aspaldi egiten zen bezala, eta gustura geratu dira lortutako emaitzarekin. Izan ere, haien produkzioa oso handia da: "Astearen behin elkartzen gara Merkatu Plazan daukagun lokalean, astearteetan, 17:00etatik 20:00etara, eta josten eta puntua egiten orduak ematen ditugu. Hitzordu hori etxetik irteteko aitzakia ere bada, eta beste emakume batzuekin harremana izateko eta aktibo egoteko parada ezin hobea".

Taldera batu ez baina lagundu nahi dutenek txartelak erosi ditzakete agortu baino lehen, edo egoera onean dagoen materiala tonbolara eraman.

Egitarau zabalaz gozatzeko aukera egongo da Gabonetan

Dorleta Vidal

Herriko elkarten eta Udalaren elkarlanari esker, ekintza ugari egingo dira herrian Gabonetan, umei zein helduei zuzendutakoak. Abenduaren 20an, larunbata, ekingo zaio egitarauari, *Ermuchef* ekintzarekin, 16:00etan, plazan, eta bukatutakoan ipuin-kontaketa egongo da liburategian, 17:30ean. Kantuzaleek, berriz, Pispillu abesbatzaren kalejirarekin gozatzeko aukera izango dute, 19:30ean hasita.

Abenduaren 24an, Olentzeroren eta Mari Domingi Txikiren kalejira izango da, 11:00etan hasita, eta 21:00etan Gabon kantak abesteko elkartuko dira

nahi duten herritar guztiak, Patxi plazan.

Kanpaia

Umeentzako Gabon parkea zabalik egongo da abenduaren 26tik 4ra bitartean kiroldegian, eta 2 eta 12 urte bitarteko umeentzako puzgarriak, ohe elastikoak eta bideojokoak egongo dira bertan, besteak beste.

Bestalde, ohitura den kanpai-jotze aurreratua egingo dute abenduaren 27an plazan, 17:30ean, eta 31n Olentzeroren kalejira izango da, plazatik hasita, 18:00etan. Bukatzeko, Errege Magoen desfilea egongo da urtarrilaren 5ean, 18:00etan hasita.

'Gabon kantak' jaialdia egingo dute abenduaren 22an

Urtero bezala, *Gabon kantak* musika jaialdia egingo dute Ermuko elizan, eta bertan parte hartuko dute herriko hainbat taldek; tartean, elizako taldeek, Jubiletxeko kantu taldeak, Extremadurako Zentroak eta Pispillu abesbatzak. Hitzordua abenduaren 22an izango da, 18:00etatik 19:00etara, eta ez da sarrerarik ordaindu beharko.



ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

Ongizate pertsonalerako zentroa
Psikologia
GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa
Zubiaurre 40 Ermua Hitzordua: 688 85 18 95

Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA
VI. Mendeberrera 15, behea
943 179 037
enter@informaticacenter.com

honigan's
kash'caven
Gosari, barik eta afariak emateko gaitzen dugu
Autrespetan 7.000etan, eduki
Auzokan eta jangarrietan, 10.000etan.
Komentukua z/g - 943 030 527

Ferreteria
ANBOTO
Bardindegi
Orain
KOTXERO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu
943 176 976
607 331 177
Zubiaurre, 25
Ermua (Bizkaia)
www.ferreteriaanboto.es

arral
Luis Cañas
Amaren
Cair
Elhun
Txikil Astobiza
Pazo Señorari
Cava Oriol Rossell
Cair
Casar de Burba
Bodegas Valdemar
García de Olano
Manzanos Wines
Pernod Ricard Wines
Faustino García Martínez.
nitida 943 176 075
arral@arral97.com
Pol. Goitonde-Golkua, Parc.7 - Pab.1
48269 Mellabia (Bizkaia)

AMAIA
HARATEGIA

Bertoko Okelak
Probaleku 5
943 17 05 84
Ermua

MUSIKA
ESKOLA
943 171 298
943 171 800
albokamusikaeskola@hotmail.com
- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoaia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

AMALUR
FISIOTERAPIA
688 619 896
Zeharkale, 12 behea
48260 ERMUA
IRENE ESQUÉ col 1666 EGOITZ FORMOSO col 1675

Pozik eta hunkituta jaso dute Kirol Sarien aitortza talde eta kirolari ermuarrek

Zazpi kirolari eta lau talde omendu dituzte Ermuko Kirol Galaren I. edizioan

Ander Gomez

300 lagunetik gora bildu ziren joan den eguaztenean Ermua Antzokian, hainbat klubek eta norbanakok kirol munduan egin duten lana aitortzeko ekitaldian.

Gimnasia erritmikoko Estatu mailako txapeldun Hodei Rivas Garcia gaztea omendu zuten lehena, Argia Sariarekin. "Pozik, hunkituta eta apur bat urduri" jaso zuen, eta, 13 urte eskas izanik, kirol feminizatu horretan bizitako esperientzietatik ateratako aholkua bota zien hura baino gazteago direnei: "Amets bat izanez gero, aurrera jarraitu beti, kritika guztien gainetik".

Promesaren ostean, beteranoaren txanda izan zen. Baina esperientziak ez ditu zertan nerbioak baretu, eta Santiago Fierres Ferreras lasterkariak barrez zioen "maratoiak hastean baino urduriago" jaso zuela Izarra Saria. "Iraganeko Santiagoz harro" zegoela azaldu zuen, "lesioak tarteko, asko entrenatu baitzen"; baina baita Ermuaz ere, jasotako babesagatik.

Meritu pertsonalak dituzten kirolariek gain, badaude elkarleen sorkuntzan edo kirolen zabalpean lagundu duten beteranoak



Anne Erauskin eskubaloia jokalaria.

ere. Txirrindularitza munduari egindako ekarpenagatik Alberto Lasuen Arriagari eman zioten Zuzen Saria. Ainhua Lasuen alabak jaso zuen haren partez, eta "aitak beti errepikatzen dituen bi mezuak" partekatu zituen: gazteei, "ikasketak ez ahaztu"; eta harekin aritutakoei, "eskerrik asko, lasterkaririk gabe ez dagoelako klubik".

Duela hogeitazortetako eta gaur egun elite mailan dagoen Errotabarri eskubaloia taldea ere ez zen ezer izango jokalaria barik. Horregatik, Taldea Saria jaso



Miguel Ledesma Blanco triatleta.

zuten "banda" bezala autoizen-datu ziren Lauko Ermuko Errotabarriko neskek.

Ondoren, Errotabarriaren eta Ermuko talde gehienek sorrera ikusi duten bikoteak jaso zuen Urko Saria: Francisca Suinaga Arrazolak eta Alfonso Vicente Andresek. 89 eta 82 urterekin, garbi utzi zuten adina ez dela kirola egiteko oztopo; kontrara, "egunak alaitzen" dizkien jarduerak dela, eta kiroldegiaren garrantziak mintzatu ziren.

Bestetik, orain dela gutxira arte adinekoak kirol mundutik

baztertuta egon dira, eta gaitasun desberdinak dituzten pertsonak ere antzerako egoera bizi izan dute. Gorabide elkartea inklusio horren alde aritu da lanean, behar bereziak dituztenei gimnasia, dantza eta halako jarduerak eskainiz. "Mundu guztiak kirolaz disfrutatzeke eskubidea duelako" jaso zuten Aukera Saria.

Dantza aipatu zuten Gorabidekoek, eta Taupada Dantza Eskolakoei taula gainera eraman: bi erakustaldi egin zituzten, eta, eskertzeko, aurreikusita ez zegoen sari sorpresa eman zieten, garai-urte eta guzti. Sari barik ere "pozik" zeudela zioten: "Dantza egitea eta eszenatoki batera igotzea gustatzen zaigu gehien".

Taulara igo zen hurrengo taldeak, eszenatokiak baino gehiago, gailurrak nahiago ditu: Artarrai Mendi Taldeak aipamen berezia jaso zuen bere 50. urteurrenean. Lagun talde txikia izan arren, "hemen kabituz ezin diren 553 bazkideen izenean" jaso zutela zioten, barre artean, "baita sortzaileenean eta irteeretara datozen herritarrenean ere".

Bukatzeko, bi sari nagusiak banatu ziren: Ermua Sariak. Emakumezkoen kategorian, liga, kopa, Superkopa... guztia irabazi duen Anne Erauskin Martinez eskubaloia jokalaria jaso zuen. Galan herritarren berotasuna sentitu zuen, baina eskerrak eman zizkien bereziki etxetik urrun dagoenetan ematen dioten babesagatik. Familiari ere eskerrak eman zizkion: "Europa

erdia nigitik zeharkatzearen". Eta aitonari dedikatu zion: "Txapeldun ikusi ninduen, eta, jada hemen ez dagoen arren, ziur nago oraindik ikusten nauela".

Gizonezkoen kasuan, Europako eta munduko txapeldun Miguel Ledesma Blanco triatletak jaso zuen. Kirolaren balio garrantzitsuenaz galdetuta, garbi erantzun zuen zein den harena: diziiplina. Baina "kirolaz harago" doala azpimarratu zuen: "Oso inportantea da hazi ahala, bizitzan, orokorrean".

Geratzeko jaiotako hitzordua

Kontakizun horien guztien baliola azpimarratu zuen Miguel Ledesma Piñeirok, Kirol zinegotziak: "Istoria ederrak entzun ditugu, eta garbi geratu da kirola bizi-bizirik dagoela Ermuan". Saririk jaso ez zutenen lana ere goraiatu zuen: "Eszenatokiara igo ez zaren arren, zuek lagundu duzue hau guztia eraikitzen". Dena den, datozen urteetan izango dute aitortza garaikur forman jasotzeko aukera; izan ere, Beatriz Gamiz Mata alkateak baieztatu zuenez, Kirol Gala "geratzeko jaiotako hitzordua" da.

**Merituez gain,
herritarrentzat
inspirazio iturri
izatea eskertzeko
saritu dituzte**

HERGA

irale
Hortz Klinika
Clinica Dental
Zeharkalea, 8 - 48760 Ermua (Bizkaia)
943 177 134

IRAZ
Odontologia
Fisioterapia
943 578 617
615 793 717
www.irazuklinika.com

OSTEOPATIA
Pablo Lucena
617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

ITZE
OPTIKA
AUDIO
Entzumenaren
doako azterketak
Audifonoetan
azkenengo teknologia
Probaleku, 7
943 17 46 51

DG
Horacio Decoración
TAPISERIA - ALIZABARRAK - OSACARRAK
VI Centenario 10 - Ermua - 943 031 580 - www.dghoraciodecoracion.com

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen

Infreñu Taberna
Kardenal Orbe plaza
943 174 584
www.infretaberna.com

BARABIXA
BAFETEGIA
Egunero 08:30etatik aurrera zabalik

Hogei urtez autogestioaren eta mugimendu sozialen txoko izan da Eskilarapeko Ateneoa

Ermuko espazio komunitario eta kulturalak 20. urteurrena ospatu du

Ander Gomez

80ko hamarkadan Gaztetxea zen mugimendu sozialen topagune; eraitsi zutenean, Zuloa izan zuten etxe, hura ere desagertu zen arte. 2005ean, Zuloaren hutsunea betetzeko heldu zen Eskilarapeko Ateneoa, sortzaileen berbetan, "Ermua alternatibo baten erreferentzia sozial" bihurtzeko.

Bi hamarkada hauetan, komunitatearen beharretara egokitu da: bilgune izateaz gain, ziber-txoko, umeen jolastoki, irratia... izan da. Gaur egun, liburutegia eta martitzenetako kontsumo ekologikoko azoka daude martxan. Urteko egun berezietan –Vertigo Rock, Sagardo Eguna, M8a– zein aldiroko hitzorduetan –BarikuTxoak, Mexiko Rebelde jardunaldiak, greba feministak–, biltegi izateaz gain, erakusketa, tailer, kontzertu, antzerki eta hitzaldi guztiak bihurtzen da.

Talde ugari egoitza moduan erabiltzen dute; besteak beste: Nü Shu, Emakumeen Asanblada eta Zipriztintzen talde feministek; gazte mugimendua osatzen duten Ermuko Txosnaguneak, Gazte Asanbladak eta GKS; nazioarteko elkartasunean eta giza eskubideen defentsan



20. urteurreneko brindisa egin aurretik, Eskilarapeko eskaileretan. MIKEL MADARIETA

ardaztutako Komite Internazionalistak, Ermua Palestinarekin eta Colibresek; eta Eskilarapeko Ateneoa baino zaharrago den saihebidetaren proiektua gauzatzeko borrokan dabilen Saihebidetaren Orain herritar plataforma.

Aurretik beste askoren etxe izan da: Ermua Libertario, Hagonia Saharako Lagunen Elkar-tea, Arkanbele talde animalista, Kimaira LGTBIQ+ kolektiboa... eta biharkoena ere izan dadin, lokala finantzatzeko bazkidetza kanpaina hasi zuten zapatuan, urteurrenaren festarekin batera.

Egindako lana ospatzeko unea

Abenduaren 20an, Eskilarapeko Ateneoaren historiaren argazki-erakusketarekin, Kokeinen kontzertuarekin eta marianito-brindisarekin hasi zen hogei urteen ospakizuna. Arratsaldean, urteak baino gehiago lortutakoa ospatzeko bazkariarekin, podcastarekin eta rantxera kantaldiarekin jarraitu zuten festa. Eta saltsa-bachata queer dantzaldian, karro-poteoan eta DJ jaian bukatu zuten gaua, lortutakoa baino gehiago lortu ez denetan ere egindako lan guztia ospatzeko.

Giza katea, tailerrak eta kontzertuak, Palestina Eguna ospatzeko

Ander Gomez

Abenduaren 20an, zapatua, Ermua Palestinarekin Ekimenak bigarren urtez ospatuko du Palestina Eguna, herri palestinarri elkartasuna adierazteaz gain, gobernu eta erakundeei Israelerikiko dituzten harreman guztiak etetea eskatzeko.

12:00etatik aurrera, umeentzako marrazki, txapa eta aurpegi margoketa tailerrak egongo dira Orbe Kardinala plazan. 13:00etan, herriguneko kaleak zeharkatuko dituen giza katea egingo dute, plazatik hasita. Ondoren, Pispillu abesbatzaren, Alboka Musika Eskolaren eta Gazako Sol Band taldeko Ahmed eta Nur Alhaddad bikotearen emanaldiak

egongo dira. Egitaraua goizean zehar kalean jarriko den erakusketak borobilduko du.

Ekintzak hilaren bukaerara arte

Palestinaren Egunaren bueltan, Elkartasun Jardunaldiak antolatuko dituzte. Abenduaren 11n hasi ziren, *The Voice of Hind* filmaren proiektioarekin, eta eguaztenean jarraitu zuten, *Palestina Trump Planaren* ondoren hitzaldiarekin. Gaur, hilak 19, Palestinako historiaren erakusketa egongo da Udal Liburutegian, 09:00etatik 20:00etara. Jardunaldiak hilaren 26an bukatuko dira, *The Jacintones* eta *Presbicia* taldeen kontzertuekin, 20:00etan, Eskilarapeko Ateneoan.

24. Korrikako lehen petoak eskuratu dituzte ermuarrek

Martxoaren 19tik 29ra izango da Korrika, eta dagoeneko ekin diote petoen salmentari. Joan den barikuan saldu ziren lehenak Ermuan, sei euroan. Gaur, abenduak 19, beste aukera bat dute *Euskara gara* lema soinean eraman nahi dutenek, 17:00etatik 19:00etara, Kaltxango euskaltegian. Horrez gain, hilaren 23an postua jarriko dute plazan.



Miguel Talavera eta Anna Batlle ikasleak, petoekin, Kaltxangan. ARAITZ BARRUETABEÑA

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPEAK - TXIKIPEAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Kopi-Fax
Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

943 03 17 56
Diputazioa, 5
ERMUA

Proba-Leku
Ileapaindegia
Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A - 48260 Ermua
943 17 47 44

LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA

943 17 17 96

@LEYTHEBARBER
GOIENKALE, 5
ERMUA (BIZKAIA)

AUTO ESCURDIA
MECANICA-ELECTRICIDAD

Jon Albizu
Ainhua M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505

LA FORJA KAFETEGIA

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 - ERMUA
943 172 412

'Aitatxo' dokumentala estreinatuko dute Mallabian abenduaren 21ean

Aiten dolua ikusaraztea da Anakotz Lasartek sortutako lan horren helburua

Dorleta Vidal

Abenduaren 21ean, igandea, mallabitarrek *Aitatxo. Isiltasuneko ahotsak* dokumentala ikusteko aukera izango dute frontoian, 18:00etan. Lan horrek seme edo alaba baten galeraren dolua azaltzen du aitaren begiradatik, eta aiten sufrimendua eta dolu eskubidea plazaratzen ditu, lau gizonek lehen pertsona kontatzen dituzten bizipenen bitartez.

Protagonistak honako hauek dira: Igor Aldazabal, Mikel Perez eta Mallabian bizi diren Fernando Alonso eta Anakotz Lasarte bera, eta bakoitzak egoera horri nola aurre egin dion azaltzen du dokumentalean, "gizarteak duen genero begirada apurtuz. Ama gutxietsi gabe aitei hitza emanez horrelako egoeren aurrean, esperantza mezu bat zabalduz", dokumentalaren aurkezpenean jasota dagoen bezala. Gainera, hainbat medikuren eta terapeutaren adierazpenak jasotzen ditu.

Anakotz Lasarte berriztarra bere bizipenetan oinarritu zen egitasmo horri forma emateko, eta zainketa aringarrietako mediku Iñaki Peñaren bitartez Aretxabaletako Artaman ekoiz-



Anakotz Lasarte. L. ZARATE

tetxearekin jarri zen harremanetan, proiektua aurrera eramateko asmoz. Lan asko egin ondoren, eta gastuei aurre egiteko *crowdfunding* kanpaina bati esker, aurten grabatu eta ekoiztu da *Aitatxo*.

Lasarteren hitzetan, dokumentalak bi helburu ditu: alde batetik, aitari eman nahi dio hitza; izan ere, salatzen du orain arte aitaren dolua "desautorizatuta" egon dela, eta terapeutek "arrazionala" dela esaten dutela. "Amarena, aldiz, dolu emozionala da, eta lan honen bitartez

gure dolua esparru arrazionaletik emozionalera aldatu nahi dugu", azaldu zion Lasartek Eneritz Aranburu idazleari *Drogetenitturri* aldizkarian.

Bestalde, lan horren helburua ere bada doluan dauden familiei erakustea horrelako heriotza baten ondoren lortu daitekeela bizitza duina egitea eta bakean egotea. "Galera betiko da, baina bakea lortu daiteke", adierazi zuen berriztarrak.

Emanaldiak

Dokumentala Gasteizen estreinatu zuten, abenduaren 11n, eta hitzordu horrekin batera lanaren zabalkundeari ekin zioten. Hala, abenduaren 21ean Mallabian egongo da ikusgai, Zaparrada Elkarteak antolatua; urtarrilaren 30ean, Donostiako Aquariumean izango da; eta otsailaren 9an, Markina-Xemeingo Uhagon Kulturunean.

Bestalde, dokumentalean oinarritutako antzeztanaren gidoia ere prestatu du Lasartek, eta hura ikusteko aukera egongo da Ermua Antzokian urtarrilaren 16an, 20:30ean. Sarrerak salgai daude dagoeneko Ermuko Lobiano Kulturunean.



2023an Guraso Elkarteak antolatutako Gabon kanten kalejira. IGONE AMESTI

Gustu guztiak asetzeko moduko ekintzak izango dira Gabonetan

Dorleta Vidal

Gabonetako egitarauak kirola, musika, aisialdia, hitzaldiak, jolasak eta dokumentalak uzartuko ditu, eta, horri esker, gustu eta adin guztietarako egokiak izan daitezkeen jarduerak izango dira Mallabian datozen asteotan. Abenduaren 19an, ping-pong txapelketa egingo da, 17:30ean, eskolako frontoian, eta 12 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute bertan. Abenduaren 21ean, berriz, *Aitatxo* dokumentala ikusteko aukera egongo da herriko frontoian, 18:00etan hasita.

Abenduaren 23an, ikasleak eskolatik herrira jaitsiko dira, 10:00etan, Gabon kanten abesteko, eta jarraian Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita izango dute eskolan bertan. Hurrengo egunean ere, abenduak 24, Olentzeroren eta Mari Do-

mingiren laguntzaileak diren galtzagorriek opariak banatuko dituzte frontoian.

Harri Herrirako Bidea

Abenduaren 27an, larunbata, Gabon eskean arituko dira nahi duten herritar guztiak Longa, Gereaa eta Osmako baserrietan, eta igandean, abenduak 28, Harri Herrirako Bidea harri-jasotzaile saioa egongo da frontoian.

Urtarrilaren 2an eta 3an, etxeko txikiek Gabonetako haur-parkeaz gozatzeko aukera izango dute frontoian, 11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era. Eta, azkenik, Superigande berezia egingo da urtarrilaren 4an, igandea. 10:00etan hasita, saskibaloia eta futbol partidak izango dira herriko frontoian, eta 16:00etan bingo berezia eta domino txapelketa egingo dituzte Kontzejuzarreen.

Otro Plan
como en casa
Erreserbak: 644 340 754

RIF
ITURGINTZA
KONPONKETAK
Marques de Valdeospina 16 - ERMUA
605 711 081

SAN PELAYO
Zuri egokien den odontologia
943 17 04 04
info@sanpelayoermua.com
San Pelayo Zuhaitza 5
48260 Ermua (Bizkaia)
PADI
Munduko lehenak sailkatzen
gaituzte
Ezkerreko lehenak
San Pelayo Zuhaitza 5
48260 Ermua (Bizkaia)

Bizkaia denda Tailor pezpina Erleja denda
Senén
1978
Diseinatuak eta kalitateak bereizten gaituzte
San Pelayo Zuhaitza 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.senenzuena.com - joycezenen@gmail.com

MIGUEL
Probaleku, 3
943 170 563
ERMUA

uriarteasesores ✓
Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza
Komentuko 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 - Ermua - Bizkaia

juan10@yahoo.es
Ermua (Bizkaia)

Quetzal
[arropa, biboiak, opariak...]
Golenkale, 9 - 48260 ERMUA
943 170 065
www.quetzalmoda.com

ileapaindegia
Silvia
peluqueria
Astearretik ostirolera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00
943 170474
688819336

TAXI
Juanan
635 70 90 90



PSE-EEko eta EH Bilduko zinegotziak alde bozkatzeko eta EAJ-PNVkoak abstenitzen. U.M.

8.937.165 euroko aurrekontu totala izango du Soraluzeko Udalak

Inbertsiorik handiena –2.137.500 euro– Olaldea berroneratzeko izango da

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

8.937.165 euroko aurrekontu totala izango du Soraluzeko Udalak 2026rako. Kopuru horretan, kanpotik etorriko den Olaldeako inbertsio berezia ere badago sartuta; beraz, hori barik, Udalaren aurrekontu erreala 6.706.164 euro izango da, 2025ekoa baino –5.576.789 euro– %20 handiagoa.

Udalaren aurrekontu totalatik 3.083.244 euro inbertsioetara bideratuko dira; kopuru horretatik 591.348 euro Soraluzeko Udalaren eskutik etorriko dira eta gainontzekoa Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzei esker finantzatuko da.

Udal Gobernuaren aurrekontu proposamena EH Bilduren eta PSE-EEren aldeko botoekin eta EAJ-PNVren abstentzioarekin onartu zen abenduaren 11ko osoko bilkuran.

Inbertsio nagusiak

Aurrekontu proposamena aurkezterakoan, Unai Larreategi alkateak nabarmendu zuen 2026rako helburu nagusiak izango direla "Olaldeako proiektua abiatzea, hainbat auzunetako bizi-kalitatea hobetzeko inbertsioak egitea, herri osoko txukuntasunean aurrerapauso gehiago ematea eta herritarrei zerbitzu ona ematen jarraitzea".

Xehetasunen arabera, Olaldeako proiektua abiarazteko 2.137.500 euro aurreikusi dituzte, eta asmoa da 2026an harako plan ur-

banistikoa gauzatzea eta patri-monio erosketak bideratzea.

Auzuneetako lanketaren ildoa, berriz, Txurrukeneko urbanizazioarako eta han aparkaleku gehiago lortzeko 117.000 euroko partida bideratu dute, eta beste 93.500 euroko partida Ezozibideko azpiko aldeko urbanizaziorako.

Txukuntasunaren alorrari dagokionez, erdigunean komun publikoak jartzeko 100.000 euroko partida zehaztu dute eta besteak beste, hiriguneko txukuntze lanetarako 101.000 euro pasa, berdeguneetarako, pintadak ezabatzeko, kale altzarietarako eta bestelakoetarako.

Aurrezki maila handitzen

Osterantzean, azpimarratutakoan artean, alkateak nabarmendu zuen "Udala ekonomikoki osasuntsu" dagoela "herriak dituen beharrei hobeto erantzun ahal izateko". Horren erakusle, jakinarazi zuen Udalaren inbertsio zein aurrezki ahalmenek "handitzen" jarraitzen dutela, aurrezki mailan "agintaldirako jarritako %10eko erronka gaindituta", aurten %10,2koa izan baita. Gainera, alkateak esan zuen hori lortu dutela "herritarrei zerbitzuak handituz eta lizitazio berriekin kirodegiko zein erai-kin publikoen garbitzaileen kondizioak hobetuz". Halaber, nabarmendu zuen "harrotasunez" esateko moduan daudela "aurrekontu proiektua udal korporazio osoarena dela, urtean zehar

jasotako ekarpen eta eztabaiden ondorio".

EAJ-PNVk, kritika gogorra

Proposamena bozkatzerakoan, jeltzaleak abstenitu egin ziren. Iker Aldazabal bozeramaileak azaldu zuenez, euren ekarpentako hainbat aurrekontuan "islatu" direla ikusita abstenitu ziren. Baina, aldi berean, Aldazabalek oso kritika zorrotzak

egin zizkien Udal Gobernuaren funtzionamenduari zein 2025eko aurrekontuan "aurreikusita egon arren gauzatu ez diren proiektu garrantzitsuei"; horrez gain, aurrekontuaren exekuzio mailari buruzko balorazio negatiboa egin, eta jeltzaleen eskaera eta proposamen nagusiak zehatz-mehatz azaldu zituen.

Funtzionamenduari dagokionez, pare bat adibide jartzearen, Aldazabalek salatu zuen 2025ean Udal Gobernuak ez duela Garapen Ekonomikoko Batzorderik egin eta Pertsonaleko Batzorde bakarra egin dela.

Gauzatu ez diren proiektuen artean, berriz, hainbat aipatu zituen, baina bereziki azpimarratu zuen Olaldeako proiektua abiatzeko milioi bat euroko partida aurreikusita egon arren 2025ean ez dela gauzatu.

Horrez gain, aurrekontuaren exekuzio mailarekiko kezka agerian utzi zuen; esan zuen "2024ko Udalaren aurrekontu orokorraren exekuzioa %73koa" izan zela, eta inbertsioen kasuan, "are baxuagoa, %43koa".

Azkenik, jeltzaleen eskaerei dagokionez, hiru puntu nabarmendu zituen: batetik, zaharren egoitzaren egoera ekonomikoari buruzko kezka azaldu zuen eta iaz izandako lur-jausiak eragindako kalteak konpontzea eskatu zuen –ezponda berritu eta generadore berria erosi–; bestetik, SAParen bigarren fasea gauzatzea eskatu zuen –alboak itxi eta espazioa antolatu–; eta, azkenik, esan zuen premiazkoa dela Erregetxeko lurpeko aparkalekuen aukera aztertzea.

PSE-EEK, babestu eta eskertu

PSE-EEri dagokionez, berriz, aldeko botoa eman zioten aurrekontuari bi zinegotzi sozialistek. Patricia Borinaga bozeramaileak esplikatu zuenez, alde bozkatu zuten, "alderdi guztiek adostutako proiektu gehienak biltzen dituelako"; sozialisten ekarpen batzuk ere bai. Horien artean zerrendatu zituen, esaterako, Zarata Mapa egitea, nahi ez den bakardadea detektatzeko azterlana egitea, pintaketak garbitzeko doako programa lantzea eta ibilgailu elektrikoendako kargagailu publiko bat jartzea, besteak beste. Halaber, "eskerrak" eman zizkion Udal Gobernuari, "erakutsi duen jarreragatik" eta "akordioak lortzeko erakutsi duen prestasunagatik".

Zuhaitz landaketa eta landare exotikoen kontrola

Bihar, zapatua, landare exotikoen kontrola eta zuhaitz landaketa egingo dute Gaztandolan –Sagar Erreka inguruan–. 09:30ean abiatuko dira landaketa lekura, GOLeko aparkalekutik, eta bazkalordurako bueltatuko dira –hamaiketako, antolatzaileen kontu–. Lurgaia Fundazioak eta Soraluzeko Baso Biziak elkarteak bertaratzeko dei egin dute.

Pailazo emanaldia Gabonetako egitarauaren baitan

Abenduaren 26an, Zapotxin izeneko pailazoak *Baratzxuri zoparen sekretua* ikuskizuna taularatuko du Herriko Antzokian, 2 urtetik gorako umeentzat eta familientzat. 17:00etan hasiko da ikuskizuna. Sarrerak 5 euroan eskura daitezke, online –*bibe.me*– edo aurrez aurre –udal liburutegian edo leihtailan–.

Izen handiko bertsolariak Gabonetako saioan

BertSorak antolatuta, abenduaren 27an Gabonetako bertso saioa izango da Herri Antzokian, bertsolari entzutetsuekin. Amets Arzallusek, Onintza Enbeitak, Xabat Ilarregik, Iruñe Basagotik eta Eneritz Artetxek jardungo dute bertsotan, Gaizka Azkarate soraluzetarren gaiekin. 19:00etan hasiko da saioa eta sarrerek 10 euro balioko dute.

Buruarinen tailerra egingo dute urte hasieran

4 urtetik gorako umei eta beren familiei zuzendutako buruarinen tailerra antolatu du Udalak urtarrilaren 2rako, Herri Antzokian, 16:00etatik 19:00ak arte. Leku mugatuak daude, eta, izen-ematearen arabera, talde bat edo bi egingo dira. Tailerrean parte hartzeko 5 euro ordaindu behar dira, online –*bibe.me*– edo aurrez aurre –udal liburutegian–.

Inbertsio nagusiak

Inbertsioa	Kantitatea
Olaldea	2.137.500
Futbol zelaia	216.000
Txurruken auzoa	117.000
Hirigunea txukuntzeko	101.760
Komun publikoak	100.000
Ezozibideko urbanizazioa	93.500
Untzetarako baserri-bidea	90.000
Hirigintza proiektuak idazteko	30.000

OHARRA: KANTITATEAK EUROTAN

Kimigramen eta egurrezko eskulturen erakusketa ikusgai Oreka Art galerian

Soraluzen bizi den Julio Mendikute artista eibartarraren erakusketa da

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Urtarrilaren 6ra arte izango da ikusgai Julio Mendikute artistak Oreka Art galerian jarrita duen erakusketa, *Kimigramak basoan*. Abenduaren hasieran inauguratu zuen, eta, Mendikutek kontatu duenez, gutxi bada ere, harrezkero izaten ari da mugimendua erakusketaren bueltan. "Artearen kasuan, oso zaila da obrari irteera ematea, saltzea; are zailagoa, Soraluze moduko herri txiki batean. Baina, sikiera, Oreka Art galeriak aukera ematen du etxean gordeta dugun obra hori ikusgai jartzeko, mugitzeko, kalera ateratzeko. Gainera, Alberto Ramirezen galeriak justu kalera ematen duen erakuslelhoa duenez, horri esker, barrura sartzen ez diren herri-tarrek ere ikusten dituzte lanak kaletik bertatik, eta hori ere bada zerbait".



Julio Mendikute, bi lanekin. EGOITZ UNAMUNO

"Sei lantza basoari"

Mendikutek bi motatako arte-lanak ditu ikusgai: batetik, kimigramak, argazkiak errebelatzeko likidoekin sortutako irudiak; eta, bestetik, egurrez egindako eskulturak. "Gustuko

dut egurra; bizirik dagoen materiala da, beroa", esplikatu du.

Orain dela 10 bat urte ekin zion eskulturak lantzeari Julio Mendikutek; argazkigintzan zebilen 25 bat urte zituenetik, baina osasun kontuengatik



Mendikuteraren zenbait obra. EGOITZ UNAMUNO

hura laga eta eskulturak lantzen hasi zen. Hain zuzen ere, Mendikutek berak estreinatu zuen Oreka Art galeria berria, haren lehen erakusketarekin: *Basoa isilik*. Azken horren izenburua baliatuta, basoaren aldeko alegatua ere egin nahi izan du eskulturagileak: "Orain basoa ez dago isilik, sei lantza sartu dizkiote. Hori ezin dugu permititu. Errota eolikoez dihardut. Errota bat hirurogei solairu dituen. Etxe batek hiru-lau solairu izan ditzake, eta errota honek hirurogei ditu.

Badator Sevillako enpresa bat, energia saltzen dio argindar-enpresa bati, eta hemen zer? Hemen gelditzen gara basoa hutsik dugula. Horixe!".

Gero, Eibarren

Soraluzeko erakusketa kentzen duenean, Eibarren-edo nahiko luke erakutsi bere obra Mendikutek. "Artearen munduan kontaktuak behar dira, eta oso zaila izaten da, adibidez, hiri handietara edo hiriburuetara iristea, baina Eibarren Kultu dago...", esplikatu du.

BELAI TZ
NEKAZAL ETA
INDUSTRI HORNIGAIK

Landare
eskaintza
orturako

MGS Seguros
Veronica Galarraga
Gertuko
eta segurua

Astelehenetik ostiralera:
16:00 - 18:30 eta 17:00 - 19:30
Sanja Ana 13
Tel.: 665 744 055

ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA

Arantza
dekorazioak
industrialak

Tel. 943 75 13 24 - Mug. 652 77 70 30

ODRI
ATEAK ETA LEIHOKAK

Meta guztietako
leihen,
pertsianak,
ateak, barandak
salmenak eta
konponketa

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

T. 662 234 609
Sagar Etxeko Kalea 2 - 20500 SORALUZE
e-mail: odrilehoak@gmail.com

ELIZPE
HORTZ KLINIKA

urte berri on eta
gabon zoriontsuak!

Informazio gehiago:

Tel. 943 75 25 67

MENDIZABAL
okindegia

Ogi - Prentsa - Gosarik

Astelehenetik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta
igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarran 10
Tel.: 943 75 13 99

Txoko

Eguneko menua,
plafar konbinatuak,
hamburgerak,
egurrezkoak,
narrak,
pizak,
gosaia...

Entzuten ari zara
Tel. 943 75 17 86

SORALUZE
MOTOR

Mendiola ind. 13
Soraluze

476 556 817 - 943 75 21 38

Armendi
Jatetxea

Sukalde
tradizionala

Eguneko menua
Asteburuetan
menu berezia

Karta
Burduntza
erretako bildotsa
Etxeko fritak
Soufflé

Tel.: 943 75 10 02

Soraluzeko
Kooperatiba Elkartea

150ak zabalik

Arandegia, janaria,
errepak, etxeak fresak,
etsara eramateko zerbaitak

Astelehenetik ostiralera:
09:30 - 12:30 eta 17:00 - 19:45
Larunbatak: 09:30 - 13:00

Kalebarran 4
Tel.: 943 75 13 45

Kontugest
Grupo

Aholkularitza fiskala - Kontabilitatea
Lan-aholkularitza - Zerbitzu juridikoa
Ticket bai - Outsourcing - Aseguruak

www.kontugest.com

IZAGUIRRE
Igeltzeritza

Eraikin berriak - Kalitatezko enaitza
Erreforma - Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913

Mimor
SOLARIUM

Respañaderia
Estreñka
Solariuma

Galea 4, Ibañeta
Tel.: 943 75 15 13 - 682 51 14 04

Ensalzaletasunaren alde:

aras **ALBISUA** **laibi**
S.L. ELECTRICIDAD

'Sukramarkus' emanaldia eta 'Teilatupean' antzezlanak, Euskeraz Bageraren baitan

Asteburu honetako kultur ekitaldiekin amaituko da aurtengo egitaraua

Izaro Aulestiarte Lete

Azaroaren 26an hasi zen Zuhazta Euskara Elkarteak, Debako Udalak eta herriko hainbat taldek elkarlanean osatutako Euskeraz Bagera zikloa. Eta, hurrezkeroko hogei bat jarduerak egin ostean, azken txanpan sartua da egitasmoa. Asteburu honetarako iragarri dituzte, hain justu, azken ikuskizunak. Helduentzat izango da bata, eta haurrentzat bestea.

Bihar, abenduak 20, Maite Arroitauregi *Mursego*-k *Sukramarkus* aurkeztuko du Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 18:00etan. Eibartarrak laburbildu bezala, funtsean Markos Gimeno sortutako palindromoen berrirakurketa librea da eta kontzertuak musika, performancea, umorea eta *hizperimentuak* uztartzen ditu. Debako Udalak *Ispilu(h)ari* izenburupean abiatutako programaren baitan egingo da ekitaldia, doan.

'Karteletarak'

Dena den, emanaldi horren aurretik, palindromo horien erakusketa ikusteko aukera ere egongo da, Musika Eskolako erakusketa gelan.

Markos Gimeno (Ermua, 1974-2018) artista moldakor eta polifazetikoa izan zen; diziplina askotariko sortzaile aparta, hainbat genero jorratu zituen, hala nola pintura, musika, antzerkia eta literatura. Palindromoen formulazioan nabarmendu zen bereziki —ezkerretik es-



Maite Arroitauregi *Mursego*. DENA FLOWS

kuinera eta alderantzizko zentzuan berdin irakurtzen diren hitzak edo esaldiak—, diziplina horretan jarri baitzuen arreta bere bizitzako azken urteetan.

Debako Arte Eskolan aritzen Gimeno, eta, hark sortutako lanekin batera, bertan ezagututako zenbait artistaren obrak ere bildu dituzte, besteak beste, erakusketan; bisitariak 56 kartel aurkituko ditu bertan. *Karteletarak* abenduaren 20ra arte egongo da ikusgai, 17:00etatik 19:00etara.

Haurrentzako bertso antzerkia

Bestelakoa izango da Ispiluen gelak etzi (abenduak 21) hartuko duen ikuskizuna: *Teilatupean*. 17:30ean hasiko da 5 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzendutako bertso antzerkia.

Iraitz Lizarragak idatzi eta zuzendu du *Teilatupean*. *Etxea*

gaitzat hartuta, hainbat gogotagai proposatzen dizkio bertan ikusleari: adiskidetasuna, zaintza, etxebizitzaren arazoa, migrazioa, marjinazioa, duintasuna, bizitza ereduen aniztasuna...

Horiek horrela, Lizarragaren esanetan, "fantasiazko munduak helduen errealitatearekin parez pare topo egiten du eta haurren ahotsa eta zilegitasuna agerian geratzen dira. Ekintza eszenikoaren bidez, aipaturiko gaien inguruko galderak planteatzen zaizkio publikoari, hausnarretarako bidea irekiz".

Hori guztia ondo uztartzeko, aktore lanetan diharduten Maren Basterretxeak, Maite Aizpuruak eta Uxue Alkorkak bertsoak, koplak eta bestelako baliabideak uztartzen dituzte antzezlanean: txotxongiloak, argi-itzalen jokoak, objektuen manipulazioa, koreografiak...



Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Debako Udaleko ordezkariak, Artzabalen. N.B.A.

Datozen egunotan amaituko dituzte Artzabalgo biribilguneko lanak

Oinezkoen segurtasuna indartzeko eta trafikoa baretzeko egindako lanen aurrekontua 181.326,74 eurokoa izan da

I.A.L.

Felix Urkola Bide Azpiegiturako eta Lurralde Estrategiako diputatua Alazne Txurruka Debako alkatearekin batera izan zen Artzabalen herenegun, hilaren 17an. Bertan jakinarazi zuten amaitzeaz daudela Gipuzkoako Foru Aldundiak eremu hartan bide-segurtasuna hobetzeko bultzatutako lanak.

Esku-hartzearen helburu nagusia N-634 errepidean trafikoa baretzea eta oinezkoen bidegurutzeetan ikuspenera eta babesa hobetzea izan da, bai bidea gurutzatzen duten pertsonentzat, bai biribilgunera sartu eta bertatik irteten diren ibilgailuentzat. Biribilgunerako sarbideak aldatu egin dituzte, abiadura murrizteko, eta oinezkoen pasabidea lekuz aldatu dute, segurtasun baldintzak hobetzeko. Espaloi berri bat ere jarri dute, Errota-

zar futbol-zelairako oinezkoen ibilbideari jarraipena emateko. Jarduketak 181.326,74 euroko aurrekontua izan du.

Alkateak Aldundiarekiko esker oneko hitzak izan zituen: "Esku-hartze horrek trafikoa lasaitzea eta ingurune hura segurua goa eta pertsona guztientzako irisgarriagoa izatea ahalbidetuko du. Zalantzarik gabe, bizi-kalitatean aurrerapen handia ekarriko die egunero hemen bizi eta bertatik ibiltzen direnei".

Irulearen begiratokia

Urkola eta Txurruka Irulearen begiratokian ere izan ziren, berriki amaitu baitituzte eremua mantentzeko eta hobetzeko lanak, bost hilabeteko exekuzioaren ondoren. Jarduketari esker, kostako horma indartu eta espazioa berri urbanizatu dute, 321.670 euroko inbertsioarekin.

Urlo Aholkularitza Komunitateen kudeaketa Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • urlo@urloasesoria.eus

Sokagiri, 2 beheak. Posta Kutxa 3, 20820 DEBA

LAMARIANO Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba

943 19 12 52

AITOR TABERNA

Lersundi kalea 25

URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero kalea 3,

943 19 17 76 - DEBA

Arteondo Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

atari INMOBILIARIA

943 19 22 63

atari@atarideba.com

www.atarideba.com

Bitor Garitaonandia nagusi Euskalsurf Surf eta Bodyboard Zirkuituaren azken proban

Nerea Bedialauneta Alkorta

Abenduaren 7an Mundakan jokatu zen 2025eko Euskalsurf Surf eta Bodyboard Zirkuituaren azken proban Bitor Garitaonandia (Deba, 2002) eta Bianca Tye gailendu ziren. Gainera, epaileek puntu kopuru bikoitza banatu zuten proban, aurtengo txapel-dunak erabakitze aldera. Bi metrotik gorako olatuek baldintzatu zuten norgehiagoka.

Surf kategorian, gizonezkoen mailan, Garitaonandia lortu zuen garaipena. Finalean Oxel Oregi markina-xemeindarra, Kai Odriozola donostiarra eta Guillermo Amezaga mundakarra izan zituen aurkari, baina erraz nagusitu zen debarra.

Probako sailkapenari dagokionez, Oregik eskuratu zuen bigarren postua, Odriozolak hirugarrena eta Amezagak laugarrena. Emakumezkoen mailan, berriz, Bianca Tye sopolarra nagusitu zen, Oihane Goñi do-

nostiarra izan zen bigarren eta Nahia Calderon eta Mikele Beatu zaraiztarak izan ziren hirugarren eta laugarren, hurrenez hurren.

Sailkapen orokorrean, bigarren

Surflari debarrak bigarren amaitu du zirkuituko sailkapen oro-

korra, 3.230 puntu erdietsita. Odriozolarentzat izan da lehen postua lehian. Aurrez Sopelan eta Zarautzen lortutako garaipenak erabakigarriak izan dira lidergoa bereganatzeko; 3.460 puntu eskuratu ditu guztira. 3.080 puntu lortuta, Oregik hirugarren amaitu du zirkuitua.



Surflari debarra, Mundakan jokaturako lehian. EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA

Abenduaren 23an Xake Festa egingo dute Ispiluen gelan

I.A.L.

Xake-zale gazteei zuzendutako hitzordu berezia hartuko du Agirre jauregiko Ispiluen gelak hilaen 23an, asteartez. San Roke Xake Taldearen ekimenez egingo da saioa eta 16 urtetik beherakoei zuzenduta egongo da. Debako Udalak nabarmendu duenez, ekimen hori gazteen artean xakearen balio pedagogikoak eta sozialak

sustatzeko helburuarekin sortu dute, "aisialdi hezitzailea bultzatzeko eta taldeko dinamika osasuntsuak sendotzeko".

Antolatzaileen esanetan, "estrategia, arreta eta dibertsioa" izango dira protagonista. Txapelketa 17:00etan hasiko da eta joko sistema suitzarra ezarriko dute; hau da, guztira sei txanda izango ditu eta partida bakoitza

hamar minutukoa izango da. Bada, erritmo biziko formatu dinamikoa izango du.

44 partaide

Izen-ematea abenduaren 19an ixtea aurreikusten zuten arren, antolatzaileek jakinarazi dute aurrez itxi dutela festan parte hartzeko epea, aretoaren edukiera bere mugara iritsita. Debako eta inguruko herrietako 44 partaide ariko dira lehian, eta, azaldu dutenez, hainbat gazte geratu dira itxarote-zerrendan, parte hartu ezinda.

Itziarko Auzo Udalak ia 1,3 milioi euroko aurrekontua onartu du

Besteak beste, baserri bideak eta Alondegi kaletik beheko bide nagusira doazen eskailerak konpondu egingo dituzte

N.B.A. ITZIAR

Itziarko Auzo Udalak 1.275.623 euroko aurrekontua onartu zuen, aho batez, abenduaren 15ean egindako ezohiko batzarrean. Arantza Egaña auzo alkateak azaldu duenez, diru kopuru horren bidez gastu finkoei, dirulaguntzei eta inbertsioei egingo die aurre toki entitate txikiak.

Egaña azpimarratu duenez, urtero legez, aurrekontuaren zatirik handiena ohiko gastu finkoetara zuzenduko da: "Kontuan izan behar da Mankomunitateko hondakinen bilketarako 529.067 euro bideratzen direla, eta horrek baldintzatzen duela beste sailetan erabil daitekeen kopurua". Gastu maila handia baldin bada ere, herriko bizikidetzak bermatuta egongo dela nabarmendu du. Testuiguru horretan, egungo ikastaroen eskaintzari eutsi egingo zaiola esan du, eta datorren urtera begira irakurketa talde bat martxan jarriko dela gaineratu.

Bestalde, Apaizetxeak jada eskola izaerarik ez badu ere, alokairua ordaintzen jarraituko dute. Erabilera askotariko gela gisa erabiliko dute espazioa; "Herriko taldeentzat bilera gelak, ikasgela bat eta liburutegi bat irekitzeko asmoa dago".

Inbertsioak

Inbertsioei dagokienez, 204.590 euro aurreikusi dituzte atal horretarako. Ohikoa denez, kopuruaren zati handi bat "egoera tamalgarrian" dauden baserri



Alondegi kalera doazen eskailerak. I.A.U.

bideak konpontzera bideratuko dute. Leizarran –Arriola auzoa– eta Txindurri Iturri –Mardari auzoa– baserrietarako sarbideak hobetzeko proposamena aurkeztu dute Aldundiaren laguntzetara, 120.000 euroko behin-behineko aurrekontuarekin. Horrez gain, Alondegi kaletik beheko bide nagusira doazen eskailerak berriro eta falta zen espaloia zatia egiteko lanak zehaztu dituzte; horretarako, 22.000 euro erabiliko dira.

Egañaren iritziz, 2026an Debako Udalarekin elkarlanean egingo den azterketa sozioekonomikoa ere "oso estrategikoa" izango da. "Ezinbestekoak dira etxebizitza berriak Itziarren, eta, lanketa horrekin HAPOren berrikuntzan sartuko garenez, oinarritzko baldintzak ezarriko ditu gai garrantzitsu horri buruz hitz egiteko eta ekiten hasteko".

Ieraenea
"maite ditut nire/gure bazterrak"
Lersundi kalea 6, Deba
943 53 95 20
ieraenea@gmail.com

Taxi Alain
Zure zerbitzurik onena
636 135 008 • www.taxideba.eus

Bar LOREA
Orotariko tartak etxean eginak
Angulero kalea, Deba • 943 19 10 95



Deba
Hortz klinika
Hondartza Kalea, 20
20820 Deba, Gipuzkoa
info@debaklinika.com
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
Kirurgia
Implanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (likusezina)
Haurren odontologia

*Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

Debatek
INFORMATIKA
Aholkularitza
Produktuen salmenta
Zerbitzu teknikoak
747 42 39 01
Debatek_

FUTBOLA

Aita-seme presidenteak, aurrez aurre, Mintxetan

Lan boluntarioa apaltzen ari den sasoian, presidente lanetan dabiltza Jesus Altzaga aita-semeak: Eibarko Urki taldean aita eta C.D. Elgoibarren semea

Asier Orbea ELGOIBAR

Eibarko Urki taldea, 1978an sortua, iaz igo zen Gipuzkoako Ohorezko Erregional Mailara, inoiz egon den kategoria altuenera. Zapatuan Mintxetan jokatu zuten, estreinakoz, CD Elgoibarko talde nagusiaren aurka, Haundiren aurka. Hortaz, partida berezia izan zen; lehendabizikoz elkarren aurka jokatzegatik, derbia izateagatik, baina, bereziki, palkoan gertatu zen berezitasun batengatik, Jesus Altzaga aita-semeak baitira klub bateko zein besteko presidenteak: aita Urkikoa eta semea CD Elgoibarkoa. Halakoak futbolaren munduan gutxitan izaten dira, eta partida aurrekoan biekin elkartu zen BARRENA, haien bizipenak jasotzeko.

Izen-abizenak eta kargua partekatzen dituzte, eta presidente izateko arrazoiak ere batzen ditu: semeengatik hartu zuten ardura. Asteburu bete-betea izan zen altzagarrenean. Bezperan ere elkarren aurka jokatu zuten Urkik eta Elgoibarrek, Lehen Erregional Mailako taldeek, hain justu. Eta altzagar batek ere jokatu zuen partida hura, bataren semea eta bestearen iloba denak. Asteburu hau gorritz markatuta zuten egutegian, denboraldi hasieran egutegiaren zozketa egin zutenetik. Halere, aitortu dute partida aurreko egunetan ika-mikarako aukera gutxi eduki dutela, semea Alemanian egon baitzen zapatuta arte, lan kontuengatik. Aitaren-

tzat baino bereziagoa zen partida harentzat, 26 urtera arte Urkiko jokalaria izan zelako. "Bihotza erdibituta bai, baina Haundik irabaztea nahi dut, zaleei ere zor diedalako. Gero, noski, gainerako partida guztiak irabaztea opa diot Urkiri".

Urkiko presidenteak gogora ekarri duenez, Elgoibarren eta Eibarren arteko derbiek oihartzun handiagoa zuten lehen. "Pikea handiagoa zen; zaleentzat tren bereziak ere ipintzen zituzten, barren!". Aitak garai haiek joanak direla uste arren, semea ez dago erabat ados. Uste du lehia bizi haien txinparta ez dela guztiz itzali; Elgoibarren, batik bat. "Elgoibarrera bizitzera etorri nintzenetik, familiako bazkarietan abestu dizkidate kirol lehia horri buruzko abestiak. Elgoibarko jokalariz izan zen osaba Iñakiren hileta elizkizunaren aurretik, tanatorioan, abestu zituzten horietako batzuk. Badakizu, Eibarrek dirua bai, baina ezin irabazi elgoibartarrei... eta antzerako hitzak dituzten kantak". Eibarren bizi zenean ez zuen halako grinarik nabaritzen, pisu txikiagoa zuen bi herrien arteko norgehiagoka horrek. "Eibarren ez genuen Elgoibar gure aurkari nagusi moduan ikusten, kategoria desberdinetan baitzeuden. Eibarren hiru futbol talde daude, eta Eibartarrak taldea da Urkiren aurkari gogorrrena, SD Eibar baino gogorragoa".



Jesus Altzaga aita-semeak: Urki taldearen bufundarekin aita eta C.D. Elgoibarkoarekin semea. ASIER ORBEA

Urki, izaera bereziko kluba

Izena ematen dion auzoko klub xumea da Urki, larre motzean bizirautea ohitutako kirol-taldea, gaur egun 11 talde eta 200dik gora jokalariz izatera iritsi den arren. Baliabide urriekin baina ilusio handiarekin egin dute aurrera. Auzokoen ekimenez sortu zuten kluba, 1975ean, eta Txus Altzagaren izena hasieratik egon da lotua klubaren izanari. 1980. urtean sartu zen zuzendaritzan, eta, lau urte geroago, 1984an, Luis Miguez ordezkatu zuen presidente karguan. Lau hamarkadatik gora daramatza klubaren gidaritzan, eta, 88 urte beteak dituen arren, erabateko inplikazioz dihardu. Akorduan du autobidea egiteko obretatik soberan geratu zen hondakindegia batetik sortu zutela futbol zelaia, boluntarioen lanari esker. "Hainbat gurasoren

"Hainbat gurasoren lan nekaezinari eta ilusioari esker iritsi gara gaurdaino"

JESUS ALTZAGA,
AITA

"Ez nuen uste Haundirekiko atxikimendua horren handia zenik"

JESUS ALTZAGA,
SEMEA

lan nekaezinari esker iritsi gara gaurdaino, eta helburu berberekin jarraitzen dugu: seme-alabei futbolaz beste modu batean gozatzeko eta bizitzeko aukera ematea, talde baten parte sentituz eta nortasun-sentimendua sortuz". Ume garaian bestelako klubetan baztertuta geratu ziren jokalariz asko jaso izan dituzte Urkin. "Urkiren lana ez baita soilik maila onean aritzeko jokalarien prestatzea, komunitatean integratzea eta bigarren aukera bat ematea ere bai".

Aita-semeak bat datoz lan boluntarioak eta militantziak bizi duten gainbeherari dago-kionez. Semeak beti ezagutu du aita presidente lanean. Gertutik ezagutu ditu haren burukominak, baliabide faltari aurre egiteko egin behar izan dituen ahaleginak. "Eskatu eta eskatu aritu naiz beti", dio presidente beteranoak. "Eta presidente bezain beste izan naiz peoi; kartelak ateratzeko diru eske tabernetara joan, horiek itsasten aritu... denetarik egitea tokatu zaigu", gaineratu du. Lana erruz egin duela aitortzen dio semeak aitari, eta oroimenean iltzatu-ta dituen aita etxera triste eta haserre iristen zen egunak. "Taldearen gorabeherak loa ere kentzen zidaten hasieran, gauza bakoitzari dagokion garrantzia ematen ikasi nuen arte; eskarmentua bezalakorik ez dago". Partidetan, baina, urdurijartzen da oraindik ere. Ner-

bioak baretzeko badu ohitura bat: kafe bat eta karajillo bat hartzen ditu partidaren aurretik, eta Mintxetara eginiko bisitan ere eutsi zion ohiturari.

Presidente izateak dakartzan aje eta zailtasun guztiak kontuan hartuta, agerikoa da galdera: zergatik hartu du semeak aitararen bidea? Lehenago aipatu moduan, bi seme ditu klubean, eta haiek izan ziren pausoa ematera bultzatu zutenak. "Aurreko zuzendaritzakoek lagatzera zihoazela adierazi zutenean, emaztearen oniritziarekin kuadrillako lagun batzuk limurtu nituen zuzendaritza osatzeko. Sartu, sartu ginen, baina ez nuen espero honek duen tamaina izango zuenik. Dagoen talde kopuruagatik, bereziki: ia 500 jokalariz! Ezustekorik handiena, baina, zale beteranoek Haundiri dioten maitasun sentimendua da; ez nuen uste, bizi ez nuelako, beharbada, Haundirekiko atxikimendua horren handia zenik zaleontzat". Aitararen bidea hasi bai, baina argi du hark adina irauteko asmorik ez duela, "inondik inora ere". Irmo dio lau urterako sartu zela. Alboan duen aitak irribarre egin dio, baina ez du ideiaz aldatzera animatu. Badaki zerbait.

CD Elgoibarrek dituen erronka nagusien artean, presidenteak uste du leku faltarena dela premiazkoena: "Datorren urtean hiru talde gehiago eduki ditza-kegu, eta ez daukagu entrentzeko espaziorik denentzat".

MENDI LASTERKETAK

Maite Maiora izango da euskal selekzioko mendi lasterketetako hautatzaileetako bat

Jokin Garai izango da beste hautatzailea eta zortzi kide izango dira batzordean

Ainara Argoitia MENDARO

Euskal Mendi Federazioaren baitako Mendi Lasterketetako Batzordeak joan den abenduaren 4an egin zuen bileran izendatu zituzten euskal selekzioko hautatzaile berriak: Maite Maiora mendararra eta Jokin Garai oñatiarra. Hautatzaile berriak ez ezik, gainerako batzordekideak ere aurkeztu zituzten; tartean, eskualdeko hiru: Iosu Juaristi elgoibartarra, Gotzon Zulaika mendararra eta Atharratze Beristain mutrikuarra. Hiru horiez gain, honako hauek osatzen dute batzordea: Joseba Usabiagak, Jone Zelaiek, Janire Agirrek, Paul Goitisolok eta Mireia Triguerosk.

Eskarmentu handikoak dira bi hautatzaileak. Maiorak, esaterako, hamabost urtetik gora daramatza mendi lasterketen munduan, eta konta ezin beste garaipen eskuratu ditu. Haste-ko, birritan izan da munduko txapeldun, maratoian eta ultramaratoian. Munduko Kilo-metro Bertikalen Txapelketan txapeldunorde izandakoa ere bada, bai eta Munduko SkyExtrem kopako txapelduna ere. Entzute handiko lasterketak irabazi ditu atzerrian, Tromso, Livigno eta Gran Paraiso, esaterako, eta etxean, Zegama-Aizkorri mendi-maratoia irabazitakoa da, 2017an; irabazi ez ezik, errekorra ere ondu zuen orduan. Halaber, hirugarren eta bosgarren egindakoa da Mont Blancoko Ultra Trailean.



Maite Maiora eta Jokin Garai hautatzaile berriak. BARRENA

Horregatik guztiagatik, munduko lasterkari osoena izendatu zuten 2017an.

Jokin Garai, berriz, 2008an hasi zen mendian korrika, eta Aloñako Igoeran egin zuen debuta. 2015ean, G2H lasterketa irabazi zuen, Euskal Herriko Ultra Trail Txapelketa zena, eta, urtebete geroago, 2016ko Hiru Handiak proba irabazi zuen. Euskal Herrian, Estatuan nahiz nazioartean lehiatu da, eta garaipen ugari pilatu ditu, harik eta lesio batek mendi lasterketak lagatzera behartu zuen arte. Azkeneko lau urteotan mendi lasterketetako batzordeko kide izan da.

Himan lasterketa irabazi du

Lorpenen zakua loditzen jarraitzen du Maite Maiorak: joan den astean, esaterako, Omango Himan mendi lasterketa iraba-

zi zuen; munduan ibilbide teknikoenetakoa duen proba. Himan mendi lasterketaren barruan bi proba daude aukeran, eta guztira 68 herrialdetako 4.500 lasterkarik eman zuten izena aurtan. Maiorak proba luzean parte hartu zuen, 120 kilometro eta 5.700 metroko desnibel positibodunean.

Hark aitortu du sentsazio onekin hasi zuela lasterketa, baina uste baino gehiago sufrituta irabazi zuela. Izan ere, bi eroriko izan zituen ibilbidean eta azkeneko 60 kilometroak ia oinez egin behar izan zituen. Eta arantza horrekin itzuli da: "Erorikoetan min hartu nuen eta uste baino gehiago sufritzea egokitu zitzaidan. Pena hori dut, gehiago gozatu ez izana halako paraje zoragarrian, benetan delako ederra inguru guzti hura"

EDUKI BABESTUA

"Bi urtetik behin galdararen errebisioa egitea ezinbestekoa da"

ALBERTO MARKUERKIAGA GASTEK ENPRESAKO ARDURADUNA

Galdararen eta gas instalazioaren errebisioak egiten ditu

Ondarroako Gastek enpresako arduraduna da Markuerkiaga, eta Lea Artibain eta Debabarrenean ematen du zerbitzua. Interesatuek 619 42 49 74 telefonora deitu dezakete.

Zein zerbitzu eskaintzen dituzu?

Galdararen bi urteko azterketa teknikoa egiten dut. Bereizi egin behar dira galdara eta gasaren instalazioa: galdara bi urtetik behin aztertu behar da, eta instalazioa, bost urtetik behin. Biak dira derrigorrezkoak. Istripuren bat izanez gero, aseguru etxeek begiratzen duten lehen gauza da.

Zergatik da garrantzitsua bi azterketa horiek egitea?

Segurtasunagatik ezinbestekoa da galdara egunean edukitzea; batez ere, gas ihesa ekiditeko. Horrez gain, galdararen funtzionamendu egokiak bermatzen du gasa ondo erretzea eta galdarari errendimendu maximoa ateratzea. Izan ere, gaizki dabilen galdara batek gehiago kontsumitzen du, eta, ondorioz, faktura garestiagoa ordainduko du. Garestiagoa izateaz gain, kutsakorrakoa ere bada.

Azterketa horiek egitea norberaren ardura da?

Bai; askotan, jendeari ahaztu egiten zaio, baina norberaren



Alberto Markuerkiaga.

ardura da. Batzuek galdararen etxearekin kontratatzen dute mantentze zerbitzua eta handik jasotzen dute abisua, baina horrelakorik eduki ezean norberak deitu behar du azterketa egiteko. Nik nire bezeroei hilabete aurretik abisatzen diet, eta askok eskertzen didate.

Galdara guztien azterketa egiten duzu?

Bai, butano edo propano gas galdara guztiak. Galdara berria denean etxeak berak ematen du zerbitzua, baina hiru urteren ondoren norberak erabaki dezake galdara etxearekin jarraitu edo ez. Guk berme eta ziurtagiri ofizialak eskaintzen ditugu, prezio merkeagoan.

LASTERKETAK

Herri beste San Silvestre lasterketa izango dira eskualdean aurtan

A.A. DEBABARRENA

Urtea korrika agurtzeko ohi-turak indar handia hartu du gurean, eta horren adierazgarri da eskualdeko herri gehienetan antolatutako dituztela San Silvestre lasterketak abenduaren 31rako.

Elgoibarren Catt Morkaikok antolatuko du aurtan ere, Udaren eta Kirol Patronatuaren

babesarekin. Kalegoen plazatik abiatuko dira lasterkariak, 17:00etan.

Ermuan Gaztela eta Leongo zentroaren atletismo klubak antolatzen du San Silvestre lasterketa, eta Zubiaurre kalean hasiko da, 17:00etan. Guztira, 3-4 kilometro egin beharko dituzte lasterkariak, zirkuituari bi itzuli.


Deban Deba Xtrem kirol taldeak antolatzen du, eta aurtan, estreinakoz, 12 urtez gorakoei emango die parte hartzeko aukera. Foruen plazan izango da irteera, 17:00etan, eta bost kilometroko ibilbidea osatu beharko dute korrikalariak. Aurrez izena eman nahi duenak turismo bulegoan eman dezake (8 euro), baina egunean bertan ere egongo da horretarako aukera, irteeran (10 euro). Nagusien San Silvestre probaren aurretik haurrentzakoak ere izango dira aurreratu dute. Hiru las-

terketa izango dira, hirurak Foruen plazan, eta 11:30ean hasiko da lehenengoa.

Soraluzen Kirol Mahaiak antolatuko du, eta 12:00etan izango da irteera, Txurritxo parean. Aurtan zirkuituari itzuli bat gehiago emango diote, sei guztira, eta moztarri onenak saria izango du. Ondoren, txokolatea, salda eta txorizoa banatuko dituzte antolatzaileek Plaza Berrian. Abenduaren 31 aurretik, baina, emakumeentzako entrenamendu egokituarako saioak lotu dituzte. Abenduaren 21ean

izango da lehenengoa, Estaziñon hasita, 10:30ean, eta bigarrena, abenduaren 27an, leku eta ordu berean.

Mendaron Mendaroko Txirrindulari Elkartek antolatuko du, eta 12 urtez gorakoek parte hartu ahal izango dute aurtan. 5 kilometro izango dira guztira, eta interesdunek ordu erdi aurretik eman beharko dute izena, frontoian. Herriko Enparantzan hasiko da lasterketa, 17:00etan, eta aurtan, moztarri onena sarituko dute antolatzaileek. Mokadua banatuko dute ondoren.



Mikel Soto idazlea, liburua eskuetan duela. ELKAR ARGITALETXEA

LITERATURA

"Zenbat eta gehiago ikertu, orduan eta modernoagoa iruditzen zait Mirande"

MIKEL SOTO IDAZLEA

'Mirande. Herriminez, ezin-minez' liburua aurkeztu du Mikel Sotok. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako Tene Mujika bekaren emaitza da

Izaro Aulestiarte Lete DEBA

Azaroan ehun urte bete dira Jon Mirande (Paris, 1925-1972) jaio zenetik, eta urteurrenean ikusi du argia, hain justu, hari buruz orain arte egin den ikerketa "osoenak". Iaz Tene Mujika beka irabazi ostean, *Mirande. Herriminez, ezin-minez* saiakera liburua ondu du Mikel Sotok (Iruñea, 1978). Bertan, Miranderen argitaratu gabeko testuak kaleratu ditu, eta, besteak beste, idazlearen arlo pertsonala ere aztertu du. Azaroan Donostian aurkeztu zuten liburua eta asteazkenean, abenduaren 17an, Deban egin berri dute aurkezpen ekitaldia. **Has gaitzen hasieratik. Zergatik Mirande? Zerk sortu zizun haren obra eta ibilbidea aztertzeke interesa? Zein izan zen abiapuntua?**

Bi errudun nagusi daude: Joseba Sarrionandia eta Joxe Azurmendi. Aurrenekoaren *Ni ez*

naiz hemengoa irakurri nuen 15 bat urterekin; iurretarrak idatzitakoek idazlearekiko interesa piztu zidaten eta hura irakurtzen hasi nintzen, oraindik ere abandonatu ez nauen liluraz. Bigarrenaren *Demokratak eta biolentoak* irakurri nuen 20 urterekin, eta ohartu nintzen, Azurmendi dioen bezala, modernitatearen arazoa dela Miranderena, eta, ondorioz, eskaldun guztiontzat arazo izaten jarraitzen duela.

Ia bi urte eman dituzu saiakera liburua argitara emateko. Nolako izan da sortze prozesua?

Beka liburua urtebetean argitaratzeko eginda dagoela kontuan hartuta, luzea, baina, aldi berean, frenetiko izan da, ez bainion uzten gauzak aurkitzeari. Baina aurten ehun urte betetzen dira Mirande jaio zenetik, eta liburuaren argitalpena urtemuga

honetarako opari ederra zela uste nuen.

Beka irabazi zenuenean, Miranderen obra hobeto ezagutzeko giltza batzuk eskaini nahi zenituela aurreratu zenuen. Eta horretarako, besteak beste, "pista bretoiari" segitzeko asmoa zenuela aipatu zenuen... Nondik hasi zinen? Zein iturritara jo duzu eta zer aurkitu duzu esparru horretan?

Idea simple batekin abiatu zen dena: askotan irakurria nuen Jon Mirandek bretoiaren idatzia zuela, baina testu horiek euskaratu gabe jarraitzen zuten, irakurriak ez nituela ohartu nintzen. Hala, aurrez argitaratu gabeko hainbat idatzi aurkitu eta argitaratu genituen idazlearen heriotzaren 50. urtemugan, eta horrek eraman ninduen jabetzera Britainiak eta bretoiak uste baino askoz garrantzi handiagoa izan zutela Miranderen

bizitzan eta, batez ere, eboluzio ideologikoan. Hori izan zen Bretainiarekin nire lehen harremana, Padrig an Habask bretoiak lagundu baininduen horiek euskaratzen, eta, ondotik, bretoi askok lagundu naute Mirandek hango aldizkarietan eta artxi-boetan utzitako pistak jarraitzen. Berrogeitik gora artxibo publiko eta pribatu arakatu ditut eta gehienak nazioartekoak dira.

Miranderi buruz asko idatzi bada ere, informazio eta argitaratu gabeko idatzi gehiago aurkitu dituzu. Zeintzuk dira aurkikuntza nagusiak edo harribitxiak?

Uf... ez ditut hemen aletuko egindako aurkikuntza guztiak, sobera ez luzatzeko, baina inportanteenak, bederen, aipatuko ditut: Jon Mirandek argitaratutako aurreneko idatziak aurkitu ditut; 1949an, oraindik jeltzalea zela EAJren Euzkadi Buru Batzarrarekin izandako gutun trukaketa; euskalgintzarekin izandako aurreneko polemika handia sortu zuen *Liburu lizuraz* idatziaren aurreneko bertsioa; galdutzat jotzen zen Jon Miranderen aurreneko ipuina; Argentinako aldizkari nazi batean argitaratutako bi saiakera; Jon Mirandek Norbert Tauerri idatzitako protoipuina pornografiko bat, baita argitaratu gabeko gutun mordoxka bat ere...

Mirande euskal literaturaren berritzailea, Mirande nazia, Mirande pederasta, Mirande poeta jeniala, Mirande arrazista... Ezagutzen al dugu Mirande? Zer ondorio atera duzu?

Ez dugu ezagutzen, ezagutzeko ahalagin askorik ere ez baitugu egin, eta, ondorioz, ulertzen ez genuenez, epaitzea deliberatu dugu. Ez da sinestekoa gauza batzuekin daukagun *kakao* mentala: hamarkadak dira lekukotza eta gutunen bidez badakigula Mirandek pederastiarako aukera izan zuela eta uko egin ziola, eta horri lotuta pederastiaren kontra idatzi zuela publikoki eta pribatuki, eta, hala ere, idazlea eta obra berdintzen saiatzen direnek ez dute deus esan honi buruz. Pentsa nola gauden! Horregatik uste dut *reset* egin behar dugula Miranderi lotutako kontu askorekin, eta, alde horretatik, liburu honek hasiera berri bat izan nahiko luke harentzat. **Laudatua bezain kritikatu eta epaitua. Posible da egilea eta obra bereiztea? Hala behar luke?**

Zaila da egilea eta obra bereiztea: egun batean, palestinar

herriaren genozidio betean Quentin Tarantino ikusten duzu Israelgo armadarekin argazkiak ateratzen, eta kolpean ez daukazu gogorik orduantxe haren filmak ikusteko. Hala ere, gauza bat da euskal irakurleek beren erabateko soberanian Jon Mirandekin edo Quentin Tarantinorekin egin nahi dutena, eta beste bat euskal kritikariak eta ikerlariak egin behar dutena. Izan ere, Miranderen eta bere obraren artean norberak nahi dituen harremanak ezarrita ere, argi aldarrikatu nahi dut haren askatasun artistikoaren alde beti paratu behar dugula. Ez dut uste euskal literaturak zentsura eta autozentsura handiagoa behar duenik; zerbait behar izatekotan, askatasun handiagoa behar duela uste dut.

Ikerketa sakon eta zabala egin ondoren, nola ikusten duzu zuk gaur egun Jon Mirande? Hasieran bezainbeste interesatzen eta gustatzen zaizu?

Hasieran bezainbeste ez, gehiago interesatzen zait. Zenbat eta gehiago ikertu, orduan eta modernoagoa iruditzen zait Mirande. Haren garaiko beste euskaldunak baino gehiago? Noski. Esan nahi dut gu baino modernoago izaten jarraitzen duela, hura zein bere obra ulertzeko edo onartzeko ere oraindik ditugun ezintasunek argi frogatzen dutenez.

Nola laburbilduko zenuke hark euskal letrei egindako ekarpena? Mirande oso gauza berezia da gure letretan; argi seduktore bat islatzen duen suziri humano eta artistiko bat, belaunaldiz belaunaldi liluratzeko, maitemintzen eta haserretzen gaituena. Gabriel Aresti kenduta, esango nuke Mirande dela gure euskal idazle belaunaldiartekoena.

"Ez dut uste euskal literaturak zentsura eta autozentsura handiagoa behar duenik"

"Gabriel Aresti kenduta, esango nuke Mirande dela gure euskal idazle belaunaldiartekoena"

ZINEMA

"Sari honek bultzada handia eman dio neure buruarengan dudan konfiantzari"

IRENE PEREZ AKTOREA ETA MODELOA

Dorleta Vidal ERMUA

Duela hiru urte joan zen Madrilera Irene Perez (Ermua, 1997), aktore izateko ilusioz bete. Ordutik hainbat iragarkitan eta film laburretan parte hartu du, antzezle eta modelo, eta abenduaren 9an saria irabazi du Sarajevo Fashion Film Festivalen, aktore onenaren kategorian. Egunotan, gainera, Hegoafrikan dihardu lanean, publizitate kanpaina bat grabatzen.

Lavish Chaos (luxuzko kaosa) fashion filmari esker nazioarteko saria jaso duzu duela egun gutxi. Espero zenuen?

Egia esanda, nahiko ezustean harrapatu ninduen. Filmak zenbait izendapen zituen hainbat kategoriatan, eta streaming birtarte ikusi nuen sari banaketa. Adi egon nintzen arren, irabazlea nintzela esan zutenean ez nintzen konturatu. Gurasoak Ermuan zeuden pantaila aurrean ere, eta haiek konturatu ziren ni baino lehenago!

Zer sentitu zenuen?

Poz izugarria! Eta beste kategorietan irabazi ez genuen arren, esan behar dut sari hau guztion delat, talde-lana ezinbestekoa izan delako produkzioa aurrera

eramateko. Bestalde, gurasoak etorri zitzaizkidan burura, ondoan izan ditudalako beti, ni bultzatzen eta babesten. Orain, egun batzuk pasatu eta gero, esan dezaket ere sari honek neure buruarengan dudan konfiantzari bultzada handia eman diola, eta aurrera egiten jarraitzeko motibazioa eman dit.

Zer da fashion film bat?

Berez, modari lotutako film laburra da, baina osagai asko ditu. Gure kasuan, Mikel Cubillo zuzendariaren proiektu pertsonala da *Lavish Chaos*. Euskal Herriko artisten aldeko apustua egin nahi izan du, eta, nirekin lan egiteaz gain, jantzita daradaman arropa guztia Bilboko BIAAF markakoa da, eta grabazioa Barakaldoko Munoa jauregian egin zen, duela urtebete inguru. Horri guztiari olerkiak gehitu zitzaizkion gero, eta emaitza oso polita da.

Nonbait ikusi daiteke zuen lana?

Momentuz, ez dago ikusgai, beste festibal batzuetan parte hartuko duelako, tartean, Berlingo Fashion Film Festivalen, 2026ko otsailean, eta hori da esparru honetan dagoen jaialdirik garrantzitsuenak; beraz, oso gogotsu

gaude. Aurretik, Londresko eta Istanbulgo festibaletan ere izendatuta egon gara.

Zein proiektu dituzu orain esku artean?

Egunotan Hegoafrikan nago publizitate kanpaina bat grabatzen; Lurmutur Hirian, hain zuzen ere. Astebete emango dut hemen, eta pozez zorutzen nago, kanpaina finantzatu duen markaren irudia izango naizelako datozen bost urteotan. Prozesu luzea izan da, eta oso urduri egon naiz azken asteetan, aldaketa asko egon direlako proiektuan eta dokumentu asko sinatu behar izan ditudalako. Lantaldearen erdia Hegoafrikakoa da, eta beste erdia Alemaniakoa; beraz, oso gauza berezia da, baina oraindik ezin dut markaren izena esan.

Ematen du bide onean zoazela...

"Interpretazioaren mundua oso konplexua da; batez ere, fikzioaren esparrua"



Irene Perez, filmaren fotograma batean. LAVISH CHAOS FASHION FILM

Bueno, aitortu behar dut azken hilabeteak nahiko gogorrak izan direla: casting dezente egin ditut, eta, fase batzuk gainditu arren, ez nuen lana lortzen. Egoera horrek antsietate handia sortzen du, nahiz eta ogibide honetan normala den horrelako gorabeherak egotea. Hala ere, azken hilabeteotan gauzak aldatzea erabaki nuen, gauza berriak etor zitezen, eta agentzia berri batean eman nuen izena. Tira, pozik nago!

Nahiago duzu interpretazioa ala publizitatea? Aktorea ala modeloa izan?

Interpretazioa gustatzen zait gehiago, eta horretara bideratu nahi dut nire lan guztia, baina ez zait axola bietan lan egitea. Publizitatean ere asko gozatzen dut, oso dibertigarria iruditzen zait eta ondo pasatzen dut, baina nire erronka da telesail batean

edo pelikula batean parte hartu ahal izatea.

Zailtasun gehiago antzematen dituzu interpretazioaren munduan?

Agian, bai; mundu hau oso konplikatu da, egia esan, eta bereziki zaila da fikzioaren esparruan lekua egitea. Ia ezinbestekoa da ordezkari bat izatea, bestela ez zaizu ia castingik irteten, adibidez. Formakuntza ere garrantzitsua da, eta, Donostiako Binahi eskolan ikasi eta gero, interpretazio diplomatura egin nuen Madrilgo Central de Cine zentroan. Bukatutakoan, beste ikastaro bat egiten hasi nintzen casting zuzendari batekin, eta horretan dihardut. Azkenean, bidea egiten noa, apurka-apurka, baina neure buruari helburuak ipini barik, agian ezin izango ditudalako helburu horiek inoiz lortu. Aurrera egiten jarraituko dut, eta gozatzen saiatuko naiz.

ZINEMA

'Txillarreko sukaldaria' dokumentala saritu dute Erreterian

Txillarreko Pello Rubioren inguruko dokumentalak ikusleen sarietako bat eskuratu du giza eskubideen zinema jaialdian

Ainara Argoitia ELGOIBAR

Film luze onenaren Ikusleen Saria eskuratu zuen domekan *Txillarreko sukaldaria* dokumentalak Erreterian Giza Eskubideen Zinema Dokumentalaren Jaialdian. 1999az geroztik Txillarre baserriko ugazaba Pello Rubiok elkarrizketa politikoaren alde egindako lana erretratzen du dokumentalak, eta Edurne San Martin eibartarra eta Asier Ibaibarriaga ermuarra ditu zuzendari. Dokumentaleko protagonista nagusia, berriz, Pello Rubio bera

da, eta 2005-2006ko bake prozesura iristeko, bere etxean, Elgoibarko Txillarre baserrian, egin zituzten otordu-bileren berri ematen du.

Zuzendari biak oso pozik eta eskertuta daude publikoaren aitortzarekin, eta Txillarreko elkarrizketetan parte hartu zuten guztiei eta dokumentala ondu duen lantalde osoari eskaini diete saria. Eskaintza berezia, berriz, apirilean zendu zen Jose Ibaibarriagarentzat izan zen, Asierren aitarentzat. Saria jasotzeko unean, Asier



Asier Ibaibarriaga eta Pello Rubio, saria eskuetan dutela. GARI GARAIALDE

Ibaibarriagak gogoan izan zuen Ion Arretxe arte-zuzendaria (Erreterian, 1964-2017). Mikel Zabaltzarekin batera atxilotu eta torturatu zuen Guardia Zibilak Arretxe 1985ean, eta egun haietan jasandakoa zabaltzeko

lanean jardun zuen, harik eta hil zen arte.

Epaimahaiaren sariak

Laugarren edizioa izan du aurtengo jaialdiak, eta, urtero moduan, giza eskubideekin konprometi-

tutako begiradetatik askotariko gizarte errealitateak lantzen dituzten dokumentalak proiektatu dituzte sei egunetan. Aurtengo, Asier Urbieta zinemagileak, Oneyda Saenz kazetari eta ekin-tzaileak, Maitena Salinas komunikatzaile eta aktoreak eta Paty Ortiz lankidetzak eta giza eskubideetan adituak osatu dute epaimahaia, eta sari nagusia *Fortes, ensemble!* filmari eman diote. Fred Pat du zuzendaria filmak, eta indar kolektiboa, sororitatea eta komunitate-erresilientzia lantzen ditu. Aipamen berezia, berriz, Amaia Nerekane eta Itziar Zoritak sortutako *Cara de bicicleta* lanarentzako izan zen.

Publikoaren beste saria, berriz, film labor onenari dagokiona, alegia, Ainhoa Urgoitiak zuzendutako *Orain zer?* filmarentzat izan zen.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

ESKAINTZAK

Elgoibar. Etxeko langile moduan lan egiteko pertsona bat behar dugu. Titulu soziosanitarioa izatea eskatzen dugu. 685 53 10 40.

Elgoibar. Enpresa batek biltegian eta banaketan lan egiteko pertsona bat behar du. Gidabaimena ezinbestekoa da. Curriculum: hornikuntza@gmail.com.

ESKAERAK

Elgoibar. Adinekoak edo desgaitasunen bat duten pertsonak zaintzeko prest nago. 642 57 89 43.

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai. 643 69 54 39.

Elgoibar. Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut eta mezularitza lanetarako ere prest nago. 651 16 41 76.

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko

langile moduan edo orduka. Gauzez ere bai. 602 49 05 95.

Elgoibar. Etxeko lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa daukat, eta zaharren egotzan praktikak eginda. 602 11 22 57.

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nengoke. Erizain titulua dut, eta urteetako esperientzia. Ospitaleetan zaintza lanak egiteko prest nago, baita gauak pasatzeko ere. 643 09 76 48.

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia dut. 643 09 75 99.

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest. Etxeko langile moduan, gauetan edo ospitaleetan lan egiteko prest nago. Urteetako esperientzia. 642 85 28 54.

Eskola partikularrak Elgoibarren. Matematika eta Ingelesko eskola partikularrak ematen dira lehen eta bigarren hezkuntzan. 943 74 19 48.

GARAJEAK

ALOKAIRUA

Elgoibar. Garaje itxia alokatzen da, Kalegoen plaza ondoan. Autoa, motorra eta trasteak gordetzeko tokia dauka. 675 70 06 14

DENETARIK

EROSI

Ermuko Alaska diskotekako baso-azpiko baten bila. Taberna eta diskoteketan banatzen zituzten promozio-artikuluak bilduma egiten ari naiz, eta Ermuan zegoen Alaska diskotekako baso-azpiko baten bila nabil. Doan jasotzeko zein eroszeko prest. 688 62 43 26 (Jose Luis).

OPARITU

Elgoibar. 3 hilabeteko txakurkumeak oparitzen dira; border collie eta arratoi-bakur nahasketa. 687 44 78 36

ZORION AGURRAK



ELGOIBAR Izei eta Uhaitz
Zorionak, bikote, abenduaren 13an 7 urte egin zenituztelako. Izebaren partez.




ELGOIBAR Jakes
Zorionak, Jakes, abenduaren 27an 3 urte beteko dituzulako. Maite zaitugu, pila-pila patata tortilla!



SORALUZE Jon Agirre
Zorionak, Jon, abenduaren 5ean zure eguna izan zelako! Etxekoon partez! Asko maite zaitugu.



SORALUZE Inar Murguzur Gabilondo
Abenduaren 5ean, 7 urte! Zorionak, Inar! Etxekoen partez. Muxu potolo bat.




SORALUZE Iñintza Garate Aizpuru
Abenduaren 24an, 24 urte beteko dituzulako, zorionak, txikitina! Etorri gehiagotan Gasteiztik. Izugarri maite zaitugu!



SORALUZE Julen Muñoz Iñurrieta
Abenduaren 6an, 6 urte! Egun ederra pasatu zenuelakoan, maitea. Segi ingurukoak poztasun horrekin alaitzen. Asko maite zaitugu. Familiako denon, eta bereziki, Sararen partez.



ELGOIBAR Mara
Zorionak, Mara, abenduaren 9an, 8 urte egin zenituelako! Oso ondo ospatu genuen! Patxo handi bat, etxekoen partez.



ELGOIBAR Libe
Zorionak, Libe, abenduaren 27an, 3 urte egingo dituzulako! Azkenean iritsi da hainbeste itxaron duzun eguna! Primeran ospatuko dugu zure 3. urtebetetzea. Muxu handi bat etxeko guztion partez!



ELGOIBAR Joar
Zorionak, Joar, abenduaren 12an, 6 urte egin zenituelako! Segi beti bezain alai eta jator. Besarkada handi bat familiakoan, eta bereziki, amama Enkarniren partez.



SORALUZE Amets Caballero Ruiz
Abenduaren 11n, 4 urte! Zorionak gure bizipoz handiari! Ilargira joan eta buelta maite zaitugu!

Iragarkia jartzeko

943 74 41 12
barrena@barrena.eus
www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkeneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- BARRENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurrak helbidean sartu.
- Mezua bidali barrena@barrena.eus helbidera, eta idatzi izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta testua.
- Etorri edo deitu gure betiko egoitzetako batera



SORALUZE Iñigo Iñurrieta Arana
Zorionak, Iñigo, azaroaren 27an 68 urte egin zenituelako! Ahalik eta egun ederrena pasa. Muxu handi eta besarkada bana etxekoen partez, bereziki Julen eta Sararen partez.



Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Etxejabeen azkeneko batzarrean, etxe bakoitzean ur beroaren kontagailuak jartzea adostu dugu, kontsumo indibidualak neurtzeko. Jakin nahiko nuke kontagailu horiek jartzearen kostua nola ordaindu behar dugun eta ados ez daudenak behartu ditzakegun ordaintzera.

Jabetza Horizontaleko legeak ematen duen aukera baliatuta, akordio horrekin lortu nahi dena ur kontsumoaren gastua indibidualizatzea baldin bada, ez litzateke arrazoizkoa aurrez egin beharreko instalazio-kostuak ez indibidualizatzea. Etxebizitza bakoitzak bere kontagailua ordaindu behar du beraz, nahiz eta kontagailua eta haren ezaugarriak jabe-kideen batzarrek adostutakoarekin bat etorri behar diren beti. Izan ere, kontagailu guztiak berdinak izan behar dira, jasoko diren datuak egokiak izan daitezzen. Arrazoi beragatik, etxejabe bakoitzak bere gain hartu beharko litzuke kontagailua konpontzeko gastuak ere.

AHOLKUA: Kontagailuak jartzeko gehiengoz hartutako erabakiak etxejabe guztiei eragiten die. Hori bai, kontagailua jartzea norbanako bakoitzaren borondatearen esku gelditu ez dadin, komunitateak hartuko du lan horiek egingo dituen kontratatze ardura eta denen artean ordainduko dituzte gero lan horiek.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

Torrealday
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

TKALAPARTA



Eguneko menua,
razioak, ogitartekoak,
pintxo poteoa...

Erdikokale 13 · ERMUA

JULEN

JULEN IZARRA GARRAIOAK

Bidegain kalea 1
48240 BERRIZ
636 958 339

solozabal tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

zermik
SISTEMA ELEKTRONIKOREN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12



ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bikoitz diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen ingeniari-entesa da. Horrez gain, Lab/IEV-en bitartez sistema industriaren kontrola eta monitorizazioa bidartzeko gaitasuna ere badu.

ELGOIBAR

Maria Jesus
Igartua Ugalde



Rufino Mendivil Maiztegui *Ipiñarri*-ren alarguna
Abenduaren 10ean hil zen, 93 urte zituela.

*Eman diguzu gabon usaina
ta karta joku andana.
Eman diguzu elegantzia;
zerbait heldu da gugana.
Zure zeurean, bizi oso bat,*

*ingurukoei emana.
Zure galerak bilobontzako
belaunaldi bat darama,
gugan biziko zarete eta
eskerrik asko, amama!*

Familiaren izenean eskerrik asko egun hauetan
gure ondoan egon zareten guztioi.

ELGOIBAR

Gloria
Canales Barrutia



Francisco Egea Garciaren alarguna
Abenduaren 16an hil zen, 74 urte zituela.

*Izan zarenagatik
eta erakutsi duzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko.*

Familia

ELGOIBAR

Jose Maria
Alvarez Oteo



Abenduaren 17an hil zen, 78 urte zituela.

*Nahi baino lehenago joan zara gure artetik,
baina betiko izango zaitugu gogoan.*

Zure sendia

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunera agertu izana.

Barrena eskelak:
zabalkunde handiena Debabarrenean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - barrena@barrena.eus

Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA



943 741 327 (24 orduz)
635 756 295 - 629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com - www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / barrena@barrena.eus

OSTIRALA 19

- **MALLABIA** Ping-pong txapelketa Eskolako frontoian, 17:30ean.
- **SORALUZE** 'Postdatarik gabeko gutunak' antzerkia Herri Antzokian, 20:00etan.
- **ERMUA** 'Macho grita' antzerkia Don Juanen mitotik abiatzen den komedia musikala. Ermua Antzokian, 20:30ean.

LARUNBATA 20

- **SORALUZE** Zuhaitz landaketa Landare exotikoen kontrola eta bertako zuhaitzen landaketa. GOL lantegiaren aparkalekuan, 09:30ean.
- **ELGOIBAR** Dultzaineroen diana 10:00etan.
- **ERMUA** Palestina Eguna Haurrentzako tailerrak, erakusketa, giza katea eta musika ikuskizunak. Orbe Kardinala plazan, 12:00etan.
- **ERMUA** Ermuchef Umeentzako sukaldaritza tailerra. Orbe Kardinala plazan, 16:00etan.
- **MALLABIA** Herri kirolak ZapatuERO ekimenaren barruan. Frontoian, 16:00etan.
- **MENDARO** Haur Krosa Adinka banatuta. Mendarozabalén, 16:30ean.

- **ERMUA** Umeentzako ipuin-kontaketa 3 eta 8 urte bitarteko umeentzat. Aldez aurretik izena eman behar da. Udal liburutegian, 17:30ean.
- **ITZIAR** Gabonetako euskal dantza jaialdia Zabalsoro frontoian, 17:30ean.
- **DEBA** Mursegoren kontzertua Palindromoen inguruko performancea ikusteko aukera izango da. Ispiluen gelan, 18:00etan.
- **ITZIAR** Gaztaina erre jana Zabalsoro frontoian, 18:30ean.
- **ITZIAR** Talo jana Burugorri ostatuan, 18:30ean.
- **MUTRIKU** MRK Gaba eta Elvis Caino Abendurock XXI ekimenaren barruan, bertsio-taldeak izango dira. Sarrera: borondatea. Gaztetxean, 19:00etan.
- **ERMUA** Gabon-kanten kalejira Pispillu abesbatzaren eskutik. Herrigunean, 19:30ean.
- **ERMUA** The 44 Dealers taldea Sarrera: 10 euro. Lobiano kulturgunean, 20:00etan.

IGANDEA 21

- **DEBA** 'Teilatupean' bertso-antzerkia Ispiluen gelan, 12:30ean.
- **EIBAR** Usartza txistulari banda Untzaga plazan, 12:30ean.

ASTELEHENA 22

- **SORALUZE** Azoka Solidarioa DBHko ikasleekin. Plaza Zaharrean, 10:00etan.
- **DEBA** Itzal antzerki laborategia LHko ikasleentzat eta nahi duten gurasoentzat. Agirre jauregiko erakusketa gelan, 16:00etan.
- **ERMUA** Gabon-kantak. Parrokian, 18:00etan.

ASTEARTEA 23

- **DEBA** Itzal antzerki laborategia LHko ikasleentzat eta nahi duten gurasoentzat. Agirre jauregiko erakusketa gelan, 11:00etan.
- **DEBA** Xake festa 16 urtetik beherakoentzat. Ispiluen gelan, 17:00etan.

ASTEAZKENA 24

- **ELGOIBAR** Elgoibarko Izarraren tonbola Kalegoen plazan, 11:00etan.
- **ELGOIBAR** Udal Musika Bandaren kalejira Maalako parkean, 13:30ean.

OSTIRALA 26

- **DEBA** Puzgarriak Aldats pilotalekuan, 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.
- **ERMUA** Umeentzako Gabon parkea Puzgarriak, bideojokoak, tailerrak... 2 eta 12 urte artekoentzat. 4ra arte. Udal kiroldegian, 11:00-13:00 eta 16:00-20:00.
- **MENDARO** Haur parkea Ikastolako jolasokian, 16:00etan.



ASIER ORBEA

Olentzero eta Mari Domingiren etorrerak

ABENDUAK 21

ELGOIBAR (ALTZOLA) Altzolako frontoian, 19:00etan. Haurrentzako opariak, eta txistorra bertaratzen diren guztiei.

ABENDUAK 24

DEBA Ongietorria, 12:00etan, Plaza Zaharrean. Kalejira eta gutun-biltzea (udaletxepean). Ordu berean, salda eta ogitarteko postua Foruen Plazan.
ELGOIBAR 10:15ean, Eguneke Zentrora joango dira Gabon kantak abestera eta, 10:40ean, San Lazaro egoitzara, herriko familiekin. 11:00etan, ongietorria egingo diete, Maalan. Jarraian, kalejira.

12:00etan, gutunak jasoko dituzte Kalegoen Plazako estalpean. Antolatzailea: Elgoibarko Izarraren Abutxiamaiak aisialdi taldea.
ERMUA Olentzero eta Mari Domingi Txikiren kalejira, Anaitasuna ikastolaren ekimenez, 11:00etan hasita, Orbe Kardinala plazatik. Gozokiak banatuko dituzte Gabon kantuak abestuz.
ITZIAR Gabon eskea. 10:30ean, herriko plazatik. Ondoren, hamaiketako Lizarbe Guraso Elkartearen eskutik. 18:30ean, Olentzerori eta Mari Domingiri ongietorria, eta HHko eskola eraikinetik Burugorriara joango dira.
MALLABIA Olentzeroren eta Mari Domingiren laguntzaileek, galtzagarriek, opariak banatuko dituzte. 18:00etan, herriko frontoian.

MENDARO Olentzerori eta Mari Domingiri ongietorria, Moxuaneko parean, 17:00etan. Ondoren, traktorean ibiliko dira kalez kale, Trinitateko baselizaraino, 18:30ak aldera. Han, agurra dantzatuko diete Mendaroko Gazteak taldekoek eta kopla bana kantatu bertso eskolakoek. Gero jasoko dituzte gutunak.
SORALUZE 11:00etan ongi etorria Plaza Barrixan gaitzagarriekin, gero kalejira, eta, amaitzean gutun bilketa, Arane kiroldegian, salda eta txorizoarekin eta jolasekin.

ABENDUAK 31

ERMUA Olentzeroren kalejira, Txindurri Dantza Taldearen eskutik. 18:00etan, Orbe Kardinala plazatik irtenda. Amaieran, Olentzero erreko dute plazan.

- **SORALUZE** 'Baratxuri zoparen sekretua' pailazoak 2 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 5 euro. Herri Antzokian, 17:00etan.
- **EIBAR** Sofia Machinen kontzertua Coliseo antzokian, 19:00etan.

- **MENDARO** 'Oreka-desoreka' ikuskizuna Aitor Etxeberria margolari eta eskulturagilearen obrari errepaso literarioa egingo dio Andoni Salamerok, Aitor Furundarena soinu-joleak, Juan Arriola gitarra-joleak

- eta Nerea eta Maddi Arriola biolin-joleek lagunduta. San Agustin kulturgunean, 19:00etan.
- **ELGOIBAR** Eguberrietako bertso jaialdia Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Alaia Martin, Miren Artetxe eta

PRO
arraindegia

ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko

ZUZENBIDE
KONTUAK
Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

SHATRI YOGA

BARNERAKO BIDAIA
NATURAREN BABESEAN
Mongoliatik ekarritako Yurtan
Mallabiko Salamatu Baserrian

klaseak
Tailerrak
Erretiroak

kontaktua: 679923683
www.shatriyoga.com



ASIER ORBEA

ELGOIBAR Gabon Zahar feria 08:30ean zabalduko dute azoka, eta herriguneko hainbat lekutan jarriko dituzte postuak. Baserriko jeneroa, ganadu azoka, artisau lanak, talo postuak, gazta lehiaketa, dantza emanaldia eta erromeria izango dira, besteak beste. Abenduaren 27an.



Errege Magoak

URTARRILAK 5

ELGOIBAR 18:00etan Santa Klaran desfilea hasiko da. Plazan, jaiotza bizian eskaintza egingo diote Jesus haurrari. Gero, kalejira izango da udaletxeko arkupeetaraino. Han umeen gutunak jasoko dituzte. **ERMUA** 18:00etan kalejiran irtengo dira San Lorenzo ikastetxetik. Ermuko Kultur Zentroak eta Te Gusta La Ruta Ermua elkarteak dira antolatzaileak. **SORALUZE** 18:00etan Mesedetako egoitzara bisita; 19:00etan Errekaldeko iturritik, zaldi gainean kalejira, erdigunetik eliz atarira. Han batuko dituzte gutunak. Beti Prest elkarteak antolatuta.

DEBA 18:30ean desfilea hasiko da Jauregiko plazan, udaletxeko arkupeetaraino. Han haurren gutunak jasoko dituzte. Aurrez, abenduaren 30ean eta urtarrilaren 2an apaingarri tailerra liburutegian eta urtarrilaren 5ekoa lotzeko bilera urtarrilaren 2an udaletxeko areto nagusian, 19:30ean. **ITZIAR** 19:00etan hasiko dute Erregeen desfilea, Bikain parean, eta plazara joango dira. Lizarbe Guraso Elkartea da antolatzailea. **MENDARO** Arno guraso elkarteak antolatuta, 18:00etarako Presapen batzeko dei egin dute, Erregeei eta laguntzaileei ongietorria egiteko. Desfilea Trinitaten bukatu, eta han batuko dituzte gutunak.

Errege eguneko kontzertua. Maalako parkean, 12:30ean.

ASTEAZKENA 7

• **ELGOIBAR Literatura tailerra** Ainhua Aldazabalek dinamizatuta. Liburutegian, 19:30ean.

OSTIRALA 9

• **ELGOIBAR 'Laguntza egoera zailetan' hitzaldia** Al-Anon eta Al-Ateen elkarteek esperientziatik. Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 18:00etan.

LARUNBATA 10

• **ELGOIBAR Euskadiko Idi kintopekoen saria** Sigmako probalekuan, 21:00etan.

IGANDEA 11

• **DEBA Ipuin kontaketa** Ispiluen gelan, 17:30ean.

ASTEARTEA 13

• **DEBA 'Eklipseen misterioak argitzen' hitzaldia** Hizlaria: Virginia Garcia Pena (Aranzadi Zientzia Elkartea). Kultur Elkarteak, 18:30ean.

OSTEGUNA 15

• **DEBA 'Mendebaldearen gainbehera, Hego Globalarena, multipolaritatea eta gatazka geopolitikoak' hitzaldia** Arbil Elkarte Sozialaren ekimenez. Kultur Elkarteak, 11:00etan.

OSTIRALA 16

• **ELGOIBAR 'Go!azen 12.0'** Herriko Antzokian; bi emanaldi: 17:00etan eta 19:00etan.



Agenda ikusgai webgunean: barrena.eus/agenda

ZINEMA

DEBA

KULTUR ELKARTEA

Quando cae la noche
Igandea 21: 19:00.

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA

Zootropolis 2
Larunbata 13: 17:00.
Igandea 14: 17:00, 20:00.
Aro berria
Larunbata 13: 17:00, 19:45, 22:30.
Igandea 14: 20:00.
Astelehena 15: 19:30.
Coartadas
Larunbata 13: 22:30.
Astelehena 15: 19:30.
Me has robado el corazón
Larunbata 13: 17:00, 19:45.
Igandea 14: 17:00.
Astelehena 15: 19:30.
La forza del destino (opera proiektzioa)
Larunbata 13: 19:45.

ELGOIBAR

HERRIKO ANTZOKIA

Wicked 2
Ostirala 19: 19:00.
Larunbata 20: 19:00, 22:15.
Igandea 21: 16:30, 19:00.
Astelehena 22: 21:00.
Valor sentimental
Larunbata 27: 19:00, 22:15.
Igandea 28: 19:00.
Astelehena 29: 21:00.
Olivia y el terremoto invisible
Igandea 28: 16:30.
Golpes
Ostirala 2: 19:00.
Larunbata 3: 19:00, 22:15.
Igandea 4: 19:00.
Ánimo (Ongarri zinekluba)
Ostirala 9: 21:00.
Rondallas
Larunbata 10: 19:00, 22:15.
Igandea 11: 19:00.
Astelehena 12: 21:00.
200% wolf: pequeño gran lobo
Igandea 11: 16:30.

ERMUA

ERMUA ANTZOKIA

Misión Santa
Igandea 21: 17:00.
Zootropolis 2
Igandea 28: 17:00.

ITZIAR

BURUGORRI GAINA

Promising young woman
Igandea 28: 18:00.

SORALUZE

HERRI ANTZOKIA

Klara eta hazi magikoen misterioa
Igandea 11: 17:00.

Eneko Lazkoz bertsolariekin. Herriko Antzokian, 20:00etan.

- **ERMUA 'El bar nuestro de cada día' antzezlan**
Umorezko bakarrizketa musikala. Sarrera: 12 euro. Ermua Antzokian, 20:30ean.
- **MUTRIKU Mihise taldea**
Abendurock XXI ekimenaren barruan. Sarrera: borondatea. Zubiaran tabernan, 22:30ean.

LARUNBATA 27

- **MALLABIA Gabon eskea baserriz baserri** Longan, 10:00etan.
- **DEBA Puzgarriak** Aldats pilotalekuan, 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.
- **ERMUA 'Merkatu plazan dantzan' plaza dantza saioa** Merkatu plazan, 12:00etan.
- **ERMUA Kanpai-jotze aurrerapen jaia** Orbe Kardinala plazan, 17:00etan.
- **ERMUA 'Semaforoa' haur ikuskizuna**
Antzezlan multimedia, antzerkia, bideo-animazioa, interakzioa eta musika biltzen dituen. Sarrera: 4 euro. Ermua Antzokian, 17:00etan.
- **DEBA 'Lotura basatiak' antzerkia** Goaz Antzerki Taldearen bira-itxiera. Ispiluen gelan; bi emanaldi: 18:00etan eta 19:00etan.
- **SORALUZE Gabonetako bertso saioa** Amets Arzallus Antia, Irune Basagoiti Agirre, Xabat Illarregi Marzol, Onintza Enbeita Maguregi eta Eneritz Artetxe Eizagirre bertsolariekin. Herri Antzokian, 19:00etan.

IGANDEA 28

- **MALLABIA 'Harri Herrirako Bidea' harri-jasotzaileen erakustaldia**
Herriko frontoian, 17:30ean.
- **DEBA 'Katana' umorezko ikuskizuna**
Ana Goitiaren ikuskizuna. Sarrerak, Internet bidez, 8 euroan. Kultur Elkarteak, 20:00etan.

ASTELEHENA 29

- **ELGOIBAR Euskadiko Idi kintopekoen finala**
Sigmako probalekuan, 21:00etan.
- **EIBAR 'Atearen beste aldean' antzezlan**
Testurik gabeko ikuskizun parte-hartzailea. Coliseo antzokian, 17:00etan.

ASTEARTEA 30

- **DEBA Itzal antzerki laborategia** LHko ikasleentzat eta nahi duten gurasoentzat. Agirre jauregiko erakusketa gelan, 11:00etan.
- **ERMUA ZKZ topaketa**
Zirkuko hainbat diziplinatan espezializatutako artista talde baten ikuskizuna. Aireko malabarrak, akrobazia erakustaldiak... Sarrera 5 euro. Ermua Antzokian, 17:00etan.

ASTEAZKENA 31

- **DEBA Debako Musika Bandaren Gabon zahar eguneko kontzertua** Plaza Zaharrean, 13:30ean.

OSTIRALA 2

- **MALLABIA Gabonetako haur parkea** Herriko frontoian, 11:30ean.
- **SORALUZE Buruarinak egiteko tailerra** Herri Antzokian, 16:00etan.
- **ERMUA 'Go!azen 12.0'**
Ermua Antzokian; bi emanaldi: 17:00etan eta 19:00etan.

LARUNBATA 3

- **DEBA Zoro Feria** 09:00etan epaimahaiaren lanen hasiera. 11:00etan kalejira Kalez Kale txistulari taldearekin eta ganadu feria kioskoan. 11:30ean Musika Eskolako dantzarien emanaldia Aldats pilotalekuan. 12:00etan trikitilarien kalejira. 12:30ean Musika Bandaren kalejira. 13:30ean Urteberri azokako sari banaketa.
- **MALLABIA Gabonetako haur parkea** Herriko frontoian, 11:30ean.
- **ITZIAR 'Zerua lapurtu dute' ikuskizuna** Zabalsoro frontoian, 17:00etan.

IGANDEA 4

- **MALLABIA Gabonetako Superigande berezia**
13 urtetik beherakoentzat. 10:00etatik aurrera saskibaloi eta futbol partidak, herriko frontoian. 16:00etan bingo berezia eta domino txapelketa, Kontzejuzarran.

ASTEARTEA 6

- **ELGOIBAR Udal Musika Bandaren kontzertua**

AZKEN BERBA

Bakardadea: epidemia isila



NAHIA
ROJO
SEXOLOGOA

Pantailaz, jakinarazpenez eta elkarrizketa digitalez inguratuta bizi gara, esnatzen garenetik oheratu arte. Paradoxikoki, kontsultan eta kontsultatik kanpo, gero eta pertsona gehiagok aitortzen dute bakarrik sentitzen direla.

Kontraesana agerikoa da: inoiz ez dugu izan komunikatzeko hainbeste tresna, baina harremanak inoiz ez dira izan orain bezain hauskorak. Pertsonen arteko harremanek denbora, pazientzia eta konpromisoa eskatzen dute, baina berehalakotasunaren kulturaren bizitzera ohitu gara.

Egoera honetan, enpatia ezinbesteko antidoto gisa agertzen da. Ez naiz soilik bestearen lekuan jartzeaz ari, baizik eta hari laguntzeaz, entzute aktibo eta eskuzabal batetik. Funtsezkoenetik deskonektatzera bultzatzen gaituen mundu honetan, agian ekintzarik iraultzailena elkarri berriro begiratzea eta entzutea eta elkar laguntzea da.

Benetako loturen balioa berreskuratzen ez badugu, jendez inguratuta jarraituko dugu, baina bakardadean bizitzen. Bakardadea ez da agenda betez desagertzen, gertu ditugunak zainduz baizik. Benetan hurbiltzen bagara, agian konturatuko gara ez garela inoiz uste bezain bakarrik egon.

Juan Mari Aizpurua, bizitza oso bat Itziarko Santutegiko organoaren atzean jarrita

Zazpi hamarkada baino gehiago daramatza herriko organista nagusi gisa

Nerea Bedialauneta Alkorta ITZIAR

Itziarko Santutegiko organoaren aurrean esertzen den bakoitzean, beste errealtate batean murgiltzen da Juan Mari Aizpurua Aizpurua (Itziar, 1925). Bizkar gainean mende osoa daraman arren, igandero-igandero, etenik gabe etortzen da Donostiatik Itziarrera organoaren doinuaz meza janztera. Lehengo trebezia berarekin ez bada ere, oraindik ere badu indarra korura doazen 44 eskailerak igotzeko eta jais-teko. Gasparrene etxeko semeak burua argi dauka, eta, sasoiak laguntzen eta uzten dion bitartean, doinuak interpretatzen jarraituko duela azaldu du.

7 urterekin abestu zuen lehen aldiz elizako koruan, Olabe baserriko aitonaaren hiletan; haren esanetan, une hartan piztu zitzaion musikarekiko grina. Koruan tiple bezala hezitako haur hura, urteekin, organista bihurtu zen. Oroitu duenez, bere kasa ikasi zuen instrumentua jotzen. Hasieran, bigarren organista gisa jardun zuen, bederatziurrunak jotzen; ondoren, organista nagusia hil zenean, 1953ko urtarrilean hartu zuen lekukoa, eta ordutik igande eta jaiegunguztietan aritu da zeregin horretan.

Ia 73 urte daramatza eginkizun horri lotuta. Banka munduan jardun zuen lanean, baina bulegoko ordutegiak ez zion inoiz eragotzi eliztarrekin hartua zuen konpromisoa betetzea. Hala, belaunaldi askotako herritarren



Juan Mari Aizpurua, Itziarko Santutegiko organoaren alboan. NEREA BEDIALAUNETA

elizkizunetan izan da presente organista itziartarra.

Bigarren omenaldia

Juan Mari Aizpurua abenduaren 18an bete ditu 100 urte, eta, efemeride berezi hori aitzakia hartuta, Debako Udalak, Itziarko Auzo Udalak eta Itziarko eliza-koruak omenaldia antolatu dute haren "ibilbide artistiko eta pertsonal oparoari" aitortza egiteko. San Tomas egunean izango da ekitaldia, 12:30ean, Itziarko Santutegian bertan. Data gerturatu ahala, urduritasuna ezin duela ezkutatu onartu du omenduak: "Urte asko ditut, eta hau dena pasatu arte urduri egongo naizela uste dut".

Hala ere, pozik eta ilusioz bizi du unea, bizitzan jasoko duen bigarren omenaldia izango baita. Izan ere, 1994an, Itziarren sorreraren 700. urteurreneko

ekitaldien barruan ere egin zioten beste aitortza bat.

Igande honetan ere santutegiko korura igoko da, organoaren parean jarri eta haren teklak eta pedalak eskuekin eta oinekin jotzera. Dagoeneko prest dauka omenaldian joko duen errepertorioa ere, eta, aurreratu duenez, kanturako abesti herrikoiak aukeratu ditu. Bere gustuko piezak izango dira, eta, Mikel Aizpurua haren semeak zehaztu duenez, egun horretan herria eta herritarrak berarekin abes-tera gonbidatzea izango da hel-

Egun horretan herria eta herritarrak harekin abes-tera gonbidatzea izango da helburua

burua. "Berak herriagatik jotzen du; beraz, egun horretan herriak berarekin abestea nahi du", dio omenaldia sustatzeaz arduratu den semeak. Omenduak berak nabarmendu duenez, ez du nahi jendea bera entzutera etortzea, "baizik eta parte hartzea eta kantatzea", garbi duelako herriak parte hartu beharko duela bere omenaldian, eta horrela egingo duela.

Liburua ere bai

Meza amaieran, gainera, Joseba Zulaika antropologoak eta Mikel Aizpurua lankidetzan argitaratutako *Juan Mari Aizpurua, 100 urteko bizipenak* liburua ere aurkeztuko dute. Semeak argitu duenez, argitalpenaren kontua Zulaikari bururatu zitzaion: "Ikusi zuen aitak bazuela zer kontatua, eta aberatsa litekeela ume garaiko eta Itziarko bestelako istorioak jasotzea liburuan".

Besteak beste, bere aitaren bizitzaren lekukotasuna eta Itziarko argazki zahar asko jaso dituzte, baita hainbat kanturen partituras ere. "Ekainean bideoan grabatu genituen hainbat doinu Itziarren bertan, eta liburuaren QR batetik edozeinek entzuteko aukera izango da", zehaztu du Mikel Aizpurua. Aukeraturako piezen artean, "Itziarren bakarrik jotzen direnak" ere badaudela gaineratu du. Liburua, baina inon ez dela salgai egongo aurreratu du egileak. Soilik omenaldiaren egunean eskuratzeko aukera izango da, doan.

Jardunaldia bazkari baten bueltan borobilduko dute. Antolatzailen esanetan, nahi duten guztiak gonbidatuta daude Salegi jatetxean egingo den otordura. Oro har, ezagutzen duten guztiak bertan ikustea gustatuko litzaioke omenduari.

Barrena
BATZEN GAITUENA

barrena.eus/egin-kide

eduki bereziak, zozketak,
deskontuak, abantailak

**egin zaitez
Barrenakide!**

